

eaj-pnv.eus



juanmariaburto.eus

HAUTESKUNDE PROGRAMA

2023-2027



JUAN MARI ABURTO RIKE
Bilboko alkatezarako hautagaia

Aurrera, batera!

Bilbao

Mira al futuro





Aurrera, batera!
Bilbao
Mira al futuro

JUAN MARI ABURTO RIKEren GUTUNA 3 OR.

GURE PROGRAMA BILBORENTZAT 5 OR.

HELBURU NAGUSIA:
BILBO PERTSONA GUZTIEN ALDE, AUZOEN ALDE ETA JARDUERA
EKONOMIKOAREN ZEIN KALITATEZKO ENPLEGUAREN ALDE 7 OR.

10 KONPROMISO BILBOREN ALDE 9 OR.

LEHENTASUNEZKO 10 JARDUERA-ILDO 13 OR.

JARDUKETAK AUZO GUZTI-GUZTIETAN 69 OR.

TALDE ZINTZO ETA KONPROMETITUA 79 OR.



Bilbotar maiteok

2019-2023 agintaldi honetako bi urtetan pandemiaren eraginpean egon gara, eta oso urte gogorrak izan dira. Bi urte horietan, asko sufritu dugu, eta senideak edo lagunak ere galdu ditugu. Horrekin batera, Errusiaren inbasioak Ukrainan sorrarazitako gerraren eragina pairatu dugu, eta pairatzen ari gara.

Baina zailtasun guztien gainetik, nire ustez, harro egon behar dugu lortutakoaz. Egoera horretatik onik ateratzea lortu dugu, eta elkarrekin lan eginez egin dugu aurrera. Bilbotarrok erantzukizunaren eta elkartasunaren eredu ederra izan gara, balioetan oinarritutako gizarte kohesionatua garela erakutsiz.

Datozen lau urteak ere garrantzi handikoak izango dira gure hiriaren etorkizunerako. Erantzuna eman beharko diegu trantsizio global handiek planteatu dizkiguten erronkei: trantsizio demografikoari, trantsizio sozialari eta trantsizio ekonomiko-digitalari. Eta bereziki, trantsizio ekologiko-energetikoari, mundu mailako larrialdi klimatikoari aurre egiteko.

Munta handiko erronkak eta munta handiko aukerak, zalantzarik gabe. Bilbo are hobea eraikitzeko aukerak, alegia. Balioak indartuz eta Garapen Jasangarrirako Helburuek eta 2030 Agendak ezarritako lehentasunekin erabat lerrokatutako hiri-agenda osatuz. Horregatik, ilusioa eta itxaropena helarazi nahi dizkizuet, orainaz zein etorkizunaz.

Agiri honetan daukazue laburbilduta nik neuk eta EAJ-PNVk datozen lau urteetarako hartu dugun konpromisoa. Badakizue nire estiloa ez dela promesak egitea. Nire estiloa atsedetik gabe lan egitea da, programa hau betetzen joateko. Bilboren alde eta bilbotarren alde lan egitea. Bilbo da nire pasioa, eta Bilboko pertsonak nire dedikazioa.

Zinegotziekin batera, lanean jarraituko dut Bilbo hiri moderno, erakargarri, jasangarri, seguru eta kulturazalea izan dadin, emakume eta gizonen arteko berdintasunarekin. Hiri solidarioa, anitza eta inklusiboa. Bilbo guzti-guztiontzat, garapen ekonomikoaren eta kohesio sozialaren ildotik.

Bilbon gazteek prestakuntza hartzeko, disfrutatzeko, lan egiteko, etxebizitza bat eskuratzeko eta nahi duten bizi-proiektua garatzeko aukera izan dezaten. Gazteek oraina eta etorkizuna izan dezaten.


Bilbon adineko pertsonak protagonistak izan daitezen, maitatuak, artatuak eta, behar dutenean, zainduak senti daitezen. Den-dena merezi dutelako.

Bilbon auzo guztiak etengabe aurrera doan hiri erakargarri honen osagai izan daitezen, gertuko eta kalitatezko zerbitzuez hornituta.

Bilbon emakumeak libre eta ahaldunduak senti daitezen, eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna benetakoa eta eraginkorra izan dadin.

Bilbon pertsona guztiek eta auzo guztiek bizi-kalitatea hobetzeko aukera izan dezaten.

Hitz ematen dizuet nire konpromisoa zuetako bakoitzaren alde lan egitea izango dela.



Juan Mari Aburto Rike
EAJ-PNVren Silboko Alkategaia



HELBURU NAGUSIA:

BILBO PERTSONA GUZTIEN ALDE, AUZOEN ALDE ETA JARDUERA EKONOMIKOAREN ZEIN KALITATEZKO ENPLEGUAREN ALDE

Bilbo gero eta kohesionatuagoa eraikitzen jarraitzea, pertsona guztiei bizi-kalitate altua bermatuz, auzo guztietan kalitatezko zerbitzuak finkatuz, inbertitzeko eta kalitatezko enplegua sortzeko hiri erakargarria osatuz.

Partekatutako balio sendoetan oinarritutako hiri, konprometitua, Garapen Jasangarrirako Helburuak lortzen lagunduko duena.



10 KONPROMISO BILBOREN ALDE

Aurrera, batera!
Bilbao
Mira al futuro



1- **Bilbo**, Edonorentzat (nagusiak, haurrak...)



2- **Bilbo**, Ekonomia eta Kalitatezko Enpleguaren motorra



3- **Bilbo**, hobekuntza eta kohesioa Auzo guztietan



4- **Bilbo**, Kultura 365 eta Nazioarteko Ekitaldien egoitza



5- **Bilbo** Gaztea



6- **Bilbo** Euskalduna



7- **Bilbo**, Giza-garapen Jasangarriaren eta Balioen hiria



8- **Bilbo** Segurua



9- **Bilbo**, Hiri Irisgarriaren eta Mugikortasun Jasangarriaren eredu



10- **Bilbo**, Erakargarria, Parte-Hartzailea eta Kalitatezko Zerbitzuekin

1.- BILBO, EDONORENTZAT (NAGUSIAK, HAURRAK...)



Lanean jarraituko dugu inor atzean ez uzteko. Adinekoak zainduz, umeeekin zein familiekin adiskidetsua den hiria bultzatuz; hiri plural, ireki, solidario, inklusibo eta anitza; emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasunarekin lotua eta indarkeria guztien aurkakoa. Bilbon, bizi-kalitatea.

2.- BILBO, EKONOMIA ETA KALITATEZKO ENPLEGUAREN MOTORRA



Baliabideak ditugu enpresak, sektore estrategikoak, talentua eta merkataritza erakartzeko. Ekintzaile-gune onena izateko, kalitateko enplegu egonkorrekin. Proiektu berriak ditugu: Hiriko Parke Teknologikoa Zorrotzaurren edo Ikus-entzunezko Huba Zorrotzako Muturrean. Bilbo, orain eta etorkizunean.

3.- BILBO, HOBEKUNTZA ETA KOHESIOA AUZO GUZTIETAN



Auzo guztiak hobetuko ditugu jarduketa-planak indartuz; igogailu gehiago, eserleku gehiago, umeentzako parke gehiago eta berdegune gehiago jarriz; argiztapena, garbiketa eta airearen kalitatea hobetuz. Auzo guztiok gara harro sentiarazten gaituen Bilbo kohesionatu eta irisgarri honen osagai.

4.- BILBO, KULTURA 365 ETA NAZIOARTEKO EKITALDIEN EGOITZA



Bertako kultura eta sormen sektorea babestuko dugu, BilbaoArte, AZ-Alhóndiga eta Euskal Museoa, Arte Ederren Museoa eta Guggenheim Museoa barne... ekitaldi handiak eta turismoa erakartzen dituzten hirien nazioarteko mapan jarraitzeko. Kalitatezko programazioarekin, 365 egunetan, auzo guztietan.

5.- BILBO GAZTEA



Gazteen bizi-proiektuak Bilbon garatzea nahi dugu. Bertan ikasi, lan egin, gozatu eta bizi daitezela, aukerak suspertzen eta talentua erakarri eta atxikitzen ikasi duen hiri honetan. Gazteentzako gune berrieekin, Bilboren eraikuntzari ekarpenak eginez parte har dezaten. Zuen beharra dugu.

6.- BILBO EUSKALDUNA



Ekintzak areagotuko ditugu euskararen erabilera zabaldu eta indartzeko, euskara baita gure kulturaren bereizgarririk garrantzitsuenetakoa. Hiri osoan euskaraz hitz egitea da gure helburua, dendetan, ostalaritzan, unibertsitatean, enpresetan... baita etxean eta kalean ere. Euskaraz bizi nahi dugu.

7.- BILBO, GIZA-GARAPEN JASANGARRIAREN ETA BALIOEN HIRIA



Lanean dihardugu Bilbo berdeagoa izan dadin, energia-kontsumoa murriztuz, uraren kalitateari, hondakinen tratamenduari zein obra eta espazio jasangarri eta efizienteei eutsiz. Balioen hiria nahi dugu, gizatiarra, oraina modu aktiboan babestuz etorkizun hobea utziko duena.

8.- BILBO SEGURUA



Estrategia osoa hedatzen jarraituko dugu herritarren bizikidetzak hobetzeko, gatazkak eta gizartearen aurkako jarrerak prebenitu, konpondu eta azkar gainditzeko ahaleginari eutsiz. Polizia-eredu hurbil baten laguntzaz egingo dugu, agente gehiagorekin. Helburua hiri segurua izaten jarraitzea da.

9.- BILBO, HIRI IRISGARRIAREN ETA MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN EREDU



AHT, Portua, Aireportua eta Autobus Geltoki Intermodala bezalako proiektu estrategikoetan aurrera egitea da gure ibilbide-orria. Eta hiriaren konektibitatea hobetzea, kalitatezko garraio publikoaren sare irisgarri eta inklusibo eredugarri batez, Bilbobus, Bizi, Metro, Tranbia eta Taxi gehiagorekin...

10.- BILBO, ERAKARGARRIA, PARTE-HARTZAILEA ETA KALITATEZKO ZERBITZUEKIN



Hiri moderno eta abangoardista eraiki dugu. Ez gara geldituko, kudeaketa eta zerbitzu onez hornitutako Hiri erakargarria izaten jarraitzeko asmoz. Herritarrengandik hurbil beti. Bilbotarron parte hartzea nahi dugu, zuen ideiak biltzeko. Bilbotarra izateaz harro.



LEHENTASUNEZKO 10 JARDUERA-ILDO

Aurrera, batera!
Bilbao
Mira al futuro



1. JARDUERA EKONOMIKOA ETA ENPLEGUA



2. GIZARTE POLITIKAK



3. GAZTERIA, BALIOEN GARAPENA, HEZKUNTZA ETA PRESTAKUNTZA



4. KULTURA ETA KIROLA



5. BIZIKIDETZA ETA SEGURTASUNA



6. HIRI-ERALDAKETA JASANGARRIA



7. GARRAIOA, MUGIKORTASUNA ETA IRISGARritasuna



8. AUZOEN GARAPENA



9. BILBO EUSKALDUNA



10. UDAL HURBILA, MODERNOA ETA ERAGINKORRA





1. JARDUERA EKONOMIKOA ETA ENPLEGUA

Aurrera, batera!
Bilbao
Mira al futuro

COVID-19aren pandemiaren azkenaldiko inpaktuaren gainerik, Bilbo egoera ekonomiko onean dago.

Bilbo aukerez beteta dagoen hiri dinamiko eta aktiboa da gaur egun. Industriarako zerbitzu aurreratuetan espezializatutako hiritzat eta kalitatezko helmuga turistikoa erakargarri eta jasangarritzat finkatu gare, eta gure hiriko enpresek enplegua ematen diete ia 185.000 pertsonari, duela 4 urte baino 7.000 pertsona gehiagori. Askotariko enplegu-programak garatu ditugu 4.000 pertsona baino gehiagoren mesedetan eta ekintzaitzari ematen diogun babesa areagotu dugu BAT enpresa-azeleragailua abian jarritz, Bizkaiko Foru Aldundiaren eskutik.

Hala ere, kualifikaziorik txikieneko pertsonen langabezia kronifikatzeko arriskuak, enpresek gero eta gehiago merkatu global batean jarduteko eskatzen dituzten profil berrietara egokitzeko premiak eta bizitza-estilo berrietara moldatzeko tokiko merkataritzaren lehiakortasunari eusteko erronkak gure onena ematera behartuko gaituzte datozen urteotan Bilboren bultzada ekonomikoa haziarazteko.

2023-2027 agintaldiari begira, gure helburu nagusia Bilbo ekintzaitzian jarduteko eta enpresak garatu eta erakartzeko lekuri onena bihurtzea da, bilbotarrentzat nahiz gure hirian instalatu eta enpresa-proiekturen bat garatu nahi dutenentzat, eta horretarako, laguntza integrala eskainiko diegu era guztietako ekintzaileei, oinarritzko autoenplegutik ekintzaitzari aurreratu eta berritzaileenera, hirian kalitatezko enplegu-aukera berriak erraztuz. Eta talentua modu integralean babestu eta bultzatuko dugu, Bilboren lehiakortasunaren gako nagusia den heinean.

1.1 - EKINTZAILETZA

HELBURUA: Sorreran nahiz finkatze eta azelerazioaldian, hirian kalitatezko enplegua sortzeko gaitasuna duten ekintzailtza-ekimen guztiak sustatu, lagundu eta babestea, ekintzailtza-kultura handitzeko sustapenari eta beharrezko finantzaketarako sarbideari arreta berezia emanez.

NEURRIAK

1. "BAT, Nazioarteko Ekintzailtza Zentroa" delakoaren II. Fasea garatu eta abian jartzea barne-ekintzailtza sustatzeko, start-upen azelerazioa bultzatzeko eta hiriko ekintzailtza ekimenak nazioarteko merkatu eta sareetara hurbiltzeko. Helburua, 2024aren amaieran, beste 5 solairu eta beste 4.000m² izatea litzateke, Bilbo-Bizkaia-eremuko ekimen estrategiko honetako zerbitzuak kokatzeko.
2. Laguntza integrala ematea bertako oinarrizko autoenplegu eta ekintzailtza-eremuko ekimen guztiari, gutxienez 600 mikro-ekintzailtza berriren eta 900 enplegu berriren sorrera erraztuz.
3. Zabalguneko Eraikina konfiguratu eta garatzea, ekintzailtza-eremuko zein teknologia eta ezagutzaren arloetako eragileekiko lankidetzarako udal zerbitzuen ardatz izan dadin, gaikuntza, mentorizazio zein lokalizazioarako dinamika berriak garatuz.
4. Bilbo ekintzailtza-eremuko harrobi bihurtzea. Enpresa eta ekintzailtza-eremuko kulturak gure hirian duen balioa sustatu, bultzatu eta aitortzeko ekintzak areagotzea.
5. Finantzaketa-aukera berriak eskaintzea hiriko ekintzailtza-eremuei, elkarrekiko bermean eta abailtan espezializatutako erakundeen lankidetzaz, proiektuen sorreran zein azelerazio-aldian behar den finantzaketarako sarbidea errazteko.
6. Bilbo norberaren konturako proiektu profesional eta enpresarial bati ekiteko leku erakargarritzat posizionatzea, beharrezko pizgarriak eta harrera-zerbitzuak eskainiz.

1.2 - TALENTUA

HELBURUA: Bilbon talentua erakarri, fidelizatu eta garatzeko estrategia integrala garatu eta hedatzea, batez ere STEAM eremuan eta ezagutza intentsiboko zerbitzu aurreratuetakoen enpresetan, beste erakunde batzuen eta hezkuntza, prestakuntza eta enpresa arloetako sarearen lankidetzaz.

NEURRIAK

1. Espezializazio sektoriala diagnostikatu eta lehenestea talentu-eskaerarik handiena dagoen esparruetan, egungo zein epe ertaineko lan-merkatuan
2. Bilboren atributuak identifikatu eta garatzea, talentua erakartzeko eta bizi-kalitatea duen bizi-proiektu ilusionagarria garatzeko moduko hiria izan dadin, Bilbo karrera profesionalak garatzeko aukera-eremutzat posizionatzeko asmoz, bertan jaioetako emakume eta gizonentzat nahiz Bilboko herritar berriak izan nahi dutenentzat.
3. Prestakuntza, birkualifikazio eta egokitzapenerako ekimenak garatzea talentu-eskaerarik handiena duten eremu sektorialetan. Aukerak eskaintzen dituzten sektore eta lanbideei buruzko informazioa ematea herritarrei zein hezkuntza eta lanbide arloetako orientazio-baliabideei.
4. Bilbon Talent House bat garatu eta abian jartzea Bizkaiko Foru Aldundiarekin batera, espazio fisikoa eta eskaini beharreko laguntza-zerbitzuak barne hartuz.
5. Bertako enpresek gehien eskatzen dituzten profesionalak erakartzeko neurriak diseinatzea, beste administrazio publiko batzuen lankidetzaz eta Basque Talent-ekin lerrokatuta.
6. Beste lurralde batzuetan lan egin ondoren gure hirira itzuli nahi duten bilbotarrei laguntza ematea, kanpoko talentuaren komunitatea sortuz. Basque Talent-ekin lankidetzan jardutea kolektibo honi zuzendutako lan-eskaintzen bilketa eta kudeaketarako, enpresen eta profesionalen arteko networkingerako, eta kontrataziorako laguntza-programen diseinu eta kudeaketarako.

1.3 - SEKTORE ESTRATEGIKOAK

HELBURUA: Bilbok industriarako zerbitzu aurreratuak eskaintzen dituzten enpresak kokatzeko hiri erakargarritzat duen posizioa indartu, finkatu eta ezagutzera ematea, gure espezializazio adimenduneko estrategiaren barruan.

NEURRIAK

1. "Zorrotzaurreko Hiri Parke Teknologikoa" delakoaren lurzati berrien garapena sustatzea beste erakunde, enpresa eta ezagutza-eragile batzuen lankidetzaz.
2. Zorrotzako Muturrean Ikus-entzunezko Poloa sustatzea, Bizkaiko Foru Aldundiarekin koordinatuta.
3. Adimen Artifizialaren Poloa bultzatzea.
4. "Silver economy" (zilarrezko ekonomia) delakoari dagozkion programak eta proiektuak garatzea.
5. Ekonomia zirkularraren inguruko garapen ekonomikoa eta enpresa-jarduera sustatzea eta jasangarritasunaren aldeko jardunbideak sustatzea Bilboko enpresen artean.
6. Hirian enpresek erabiltzeko moduko aukera-esparru berriak garatzea, HAPOn eta/edo plan berezien bidez zehaztuz, Bilbon enpresa berriak ezarri eta jarduera ekonomikoa sortzen laguntzeko asmoz.
7. Bilbao Zero 2 gisako berrikuntza irekiko dinamikak finkatzea hiriaren erronketarako soluzio teknologikoak identifikatzeko, Living Lab esperientziak garatuz bertako ekintzailatza-proiektuekin, hiriarri, herritarrei eta beste enpresa batzuei zerbitzua eta bizi-kalitatea emateko soluzioen diseinuan parte hartzeko aukera izan dezaten.
8. Mercabilbao. Mercabilbao Next deritzon hazkunde eta modernizazio proiektuan aurrera egitea.

1.4 - TURISMO JASANGARRI ETA OREKATUA

HELBURUA: Bilbo balio erantsi handiko nitxoetan espezializatutako helmuga turistikoa erakargarritzat garatu eta sustatzea, fluxu turistikoaren eta hiri barruko dinamiken artean ahalik eta jasangarritasun eta orekarik handiena bermatuz, pertsonak une oro erdigunean daudela. Hiria nazioarte mailako ekitaldiak, biltzarrak eta konferentziak antolatzeko lekutzat finkatzea.

NEURRIAK

1. Bilbo-Bizkaia 2030 Turismo Estrategiaren garapena, hedapena eta etengabeko ebaluazioa, gaualdien ratioa, pertsoneno batez besteko gastua eta errepikapentasa hobetzeko helburuei jarraiki, eta horretarako produktuak, programak eta zerbitzuak garatzea.
2. Jarduera turistikoa dagozkion eremu zehatzak identifikatzea Bizkaiko Foru Aldundiaren lankidetzaz erabilereen jasangarritasuna eta oreka hobetzeko, bisita gidatuak eta ostatu-eredu berriak kasu, eta horretarako neurriak ezartzea, sektoreko eragileekin koordinatuta.
3. Tresna digitalen eta teknologia berrien erabilera intentsiboa hiriko turismoa sustatzeko, bisitatzen gaituztenen esperientzia hobetzeko asmoz.
4. Bilbao Convention Bureauaren eginkizuna indartzea, Bilbora jarduera korporatibo berriak erakartzeko eta horiei buruzko aholkularitza eta laguntza emateko, eta inpaktu ekonomikoaz gain Bilbo-Bizkaia-Euskadiri maila altuko ezagutza ekarriko dieten eremu akademikoari, zientzia-ikerketari nahiz enpresamunduari lotutako ekitaldiak beren-beregi sustatzea.
5. Bilboko aire, trenbide zein itsas konexioak hobetzea erakundeen arteko lankidetzaren bitartez. Bereziki, Abiadura Handiko Trena hirira iristeko behar den guztia prestatzea.

1.5 - BERTAKO MERKATARITZA BABESTEA

HELBURUA: Bertako merkataritzari babes integrala ematea, lehiakortasunari eutsiz eta kontsumo-eredu berrieta egokitzea sustatuz, eta Bilbok merkataritza-hiriburu bezala duen erakargarrtasuna indartzea, Bizkaian eta gure eragin-eremu globalean (“Bilbo 90 minutura”).

NEURRIAK

1. Merkataritzaren 2025eko Plan Estrategikoa garatzea sektorea ordezkaten duten erakundeekin eta beste erakunde publiko batzuekin batera, merkataritza biziberritzeko neurriak hirigintzara, enpresen kudeaketara nahiz merkataritzaren sustapenera hedatuz eta gure auzoetako hurbileko merkataritzari arreta berezia emanez.
2. Merkataritzaren lehiakortasunaren hobekuntzarako, digitalizaziorako, banakako errefortzurako nahiz kanal anitzeko jarduerarako ekintza berriak abian jartzea, eta haren balio-proposamena eguneratu eta hobetzeko eta bezeroekiko sarbide eta harreman-modu berriak hartzeko laguntzea.
3. “Bilboko Merkataritza Foroa” Merkataritzako Plan Estrategikoari laguntzeko eta jarraipena egiteko plataformatzat garatzea, sektoreko erronkei heltzeko lan-mahai tematikoak zabalduz.
4. Berrikuntzari, negozio-eredu berriei eta zerbituzioari dagozkien bertako merkataritzaren jardunbiderik onenak balioztatu eta merkatarien artean ezagutzera ematea.
5. Kontsumoari eragiten dioten aldagaiak aztertzeko Big Data plataforma hedatzea, Bilboko merkatariei datuetan oinarritutako erabakiak hartzen laguntzeko.
6. Auzoak eta hiria dinamizatzeko plan integrala hedatzea, udalaren zein sektorean diharduten eragileen ekintza integratzeko, merkatarien auzo-elkarteei arreta berezia emanez.
7. Erosketa arduratsu eta kontzienteari lotutako balioak sustatu eta zabaltzea, bertako merkataritza kontsumitzailearen interesetara hurbiltzeko.
8. Udal Merkatuen Plan Estrategikoa landu eta inplementatzea.

1.6 – INBERTSIOAK ERAKARTZEA: INVEST IN BILBAO BIZKAIA

HELBURUA: Lan proaktiboa garatzea, enplegua sor dezaketen inbertsio produktiboak Bilbora erakartzen laguntzeko.

NEURRIAK

1. Bizkaiko Foru Aldundiarekiko eta Eusko Jaurlaritzarekiko aliantza indartzea, enplegua sortzen duten inbertsioak hirira erakarri eta bideratzen laguntzeko
2. Bilbora erakarrirako inbertsio produktiboei zerbitzu integrala eskaintzea eta berariazko prestakuntza-ekintzak antolatzea, sortutako enplegu-aukerak hiriko pertsonentzat izan daitezen, bertako zentro teknologiko eta klusterrekiko elkarrizketari etsiz.
3. Zorrotzurreko Ipar Muturra berrikuntza-poloztat garatzea, jarduera ekonomiko berria hartuko duten beste 4 lurzati abian jarritz.

1.7 – LANERATZEA ETA KALITATEZKO ENPLEGUA

HELBURUA: Jarduera ekonomikoak bilbotarren mesedeko kalitatezko enplegu-aukerak sor ditzala lortu eta bultzada berezia ematea enplegua lortzeko zailtasunik handienak dituztenei (gazteak, emakumeak, 45 urtetik gorakoak eta kualifikazio txikieneko pertsonak) zuzendutako programei.

NEURRIAK

1. Enplegu-planak eta bestelako esperientzia-programak garatzea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuarekin eta beste eragile batzuekin batera, 4.000 bat pertsonari zuzendutako kontratazio-aukerak sortzeko.
2. Kualifikazio murrizteko pertsoneri eta laneratze zailtasun handiagoak dituztenei prestakuntzarako eta enplegurako sarbidea erraztea xede duten ekimen propioak sustatu eta beste erakunde, entitate eta enpresa batzuek bultzatutako programak babestea.
3. Lanbide Heziketan eta Unibertsitateko Graduetan titulatura dauden gazteentzako enplegu-planak garatzea, prestakuntzaren arloko enpresen eta eragileen lankidetzaz.
4. Enplegu-planak eta enplegu-programak garatzea pertsonen birkualifikazioa sustatzeko, laneratzea xede duten plan berezien elaborazioaren bitartez, 2.000 pertsona ingururen enplegarritasuna hobetzea erraztuz.

1.8 - EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOA

HELBURUA: Ekonomia sozial eta solidarioa gizarte-erantzukizunezko enplegu eta aberastasunaren sorkuntzaren eredutzat sustatzea.

NEURRIAK

1. Ekonomia Soziala herritarren artean sustatzea, autoenplegu eta ekintzailetzarako aukeratzat, enpresa berriak sortzeko aukeratzat eta ekonomiaren zein gizartearen ikuspegitik jasangarria den garapenaren aldeko konpromisoaren adibidetzat
2. Euskadiko Ekonomia Sozialaren eragileekin akordioa, Bilbon sustatu eta garatzeko.
3. Erosketa publikoaren mekanismoan sakontzen jarraitzea Ekonomia Soziala sustatu eta bultzatzeko elementutzat.
4. San Frantziskoko "Ekonopoloa" erreferentziatzko esparrutzat garatzea, gizarte zein elkartasun arloetako prestakuntza eta ekintzailatza babesteko.

1.9- NAZIOARTEKO EKITALDIAK ERAKARTZEA

HELBURUA: Ekonomia, kultura, kirol zein aisia arloetako jarduera sortzeko eta/edo ezagutza erakarri eta hirian aberastasuna eta enplegua sortzeko helburu bikoitza betetzen duten inpaktu handiko nazioarteko ekitaldiak Bilbora modu jasangarri eta orekatuan erakartzea.

NEURRIAK

1. Hurrengo urteetarako lortu diren nazioarteko mailako ekitaldiak kudeatzea: Frantziako Tourraren irteera 2023ko uztailan, UEFA Women's Champions Leagueko finala 2024an eta UEFA Europa Leagueko finala 2025ean.
2. Nazioarteko ekitaldiak erakartzeko estrategia garatzea Bizkaiko Foru Aldundiarekin batera, hiriarentzat estrategikoak diren esparruetan: kultura, kirola, enpresa, ekonomia, gizarte-garapena eta teknologia.
3. Ekitaldi horiek erakarri eta kudeatzea, betiere jasangarritasuna (tokiko dinamikekiko bateragarritasuna), segurtasun publikoaren bermea eta enpleguaren zein hirirako itzulkin ekonomikoaren gaineko ahalik eta inpakturik handiena bilatuz.
4. Bilbon zientzia eta ikerketa arloetako ekitaldiak beren-beregi sustatzea, eta horien bidez, inpaktu ekonomikoaz gain, maila altuko ezagutza erakartzea Bilbo-Bizkaia-Euskadira.
5. Ekitaldi propioen eredua sustatzea: Bilbao Gabonak, Basque Fest...

2. GIZARTE POLITIKAK

Aurrera, batera!
Bilbao
Mira al futuro

Gizarte-politika aurreratua izatea funtsezkoa da pertsona guztien oinarritzko eskubideak bermatzeko eta Bilbo kohesionatua eraikitzeko.

Gizarte-politika herrialde mailako politika da, eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren bitartez, lankidetzaz koordinatuan biltzen ditu 3 maila instituzionalak (Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundiek eta Udalek Forales y Ayuntamientos). Sistema honetan, udalek eginkizun bikoitza dute zerbitzuak zuzenean emateko (batez ere mendekotasun moderatua duten edo bazterkeria arriskuan dauden pertsonetako hurbiltasunezko zerbitzuak) eta zerbitzuetarako sarbidea behar duten pertsonak informatu eta laguntzeko, baita laguntzak banatzeko ere horietarako eskubidea dutenei.

Azken 4 urteotan, gure gizarte-zerbitzuak indartzen eta hobetzen jarraitu dugu, eta aparteko egoerei erantzun behar izan diegu: COVID-19aren osasun-krisia eta Ukrainako gerrako errefuxiatuak artatzeko premia, kasu. Hori guztia hiriko gizarte-erakundeekin lankidetzaz eta zerbitzuen onuradunen partaidetzaz egin dugu.

2023-2027 agintaldirako, Udal Gizarte Zerbitzuen kalitatea indartzen jarraituko dugu, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemarako sarbide bezala, Udalean ezarri dugun arreta-ikuspegi komunitarioari jarraiki, betiere pertsonak ardatz dituzten zerbitzuak bermatuz eta esku-hartze sozialaren abangoardian kokatuz, eta adinekoen mendekotasun, kalteberatasun zein bakardade-egoeren prebentzioari arreta berezia emanez. Etxebizitza eskuratzeko aukera bultzatuko dugu, baita herritar guztiei ohitura eta bizi-baldintza osasungarriagoak hartzen laguntzeko programak ere, eta indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei laguntzeko mekanismoak indartuko ditugu. Hori guztia, sozialki kohesionatuta dagoen Bilbo inklusiboan lortzeko helburuari lotuta, pertsonarik ahulenei eta behar handienak dituztenei inor atzean utzi gabe aurrera doan hiri honetako partaide direla sentiarazteko asmoz.

2.1- GIZARTE ZERBITZUAK

HELBURUA: Udal Gizarte Zerbitzuen kalitatea indartzea Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemarako sarbide bezala, pertsonak ardatz dituzten zerbitzuak bermatuz eta esku-hartze sozialaren abangoardian kokatuz. Hori guztia, sozialki kohesionatuta dagoen Bilbo inklusiboa lortzeko helburuari lotuta, pertsonarik ahulenei eta behar handienak dituztenei, inor atzean utzi gabe aurrera doan hiri honetako partaide direla sentiarazteko asmoz.

NEURRIAK

1. Udalaren Oinarrizko Gizarte-Zerbitzuetan bikaintasunezko arretarantz aurrera egitea Gizarte-Zerbitzuen Sistemarako sarbidetzat, herritarren era guztietako beharretara egokitutako baliabideak eskainiz.
2. Gizarte-Zerbitzuen Legearen Zorroari buruzko Dekretuan zehaztutako zerbitzu guztiak izatea eta Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoan ezarritako ratioak betetzea, estaldura handituz ezagutu edo aurreikusitako eskaria handiagoa denean eta arreta egokia emanez herritarren eskariari.
3. Arreta-eredu berriak garatzea, erakundeen arteko koordinazioa tarteko, arreta eta jarraipen indibidualizatua bermatzeko eta sortu doazen gizarte-premiei erantzun berritzaileak ematen lagunduko duten arreta-proiektu bateratuak errazteko.
4. Etengabeko ebaluazio-sistema ezartzea, udal baliabideen erabiltzaileen gogobetetze-inkestetan oinarrituta, zerbitzu, programa, ekimen eta proiektu integratzaileak, normalizatzaileak, berritzaileak, pertsonalizatuak eta prebentiboak bermatzeko, horien beharra duten pertsona eta familia guztiei laguntzarren.
5. Gizarte Zerbitzuen Udal Kontseilua dinamizatzea, Hirugarren Sektorre Sozialarekin koordinatzeko organotzat dituen batzordeak indartuz, gizarte-erronka berriei aurre egin ahal izateko.

2.2- AUTONOMIA SUSTATU ETA MENDEKOTASUNARI SOSTENGUA EMATEA, BEREZIKI ADINEKOENGA

HELBURUA: Pertsonen zahartze aktibo eta burujabea sustatzen duen zaintzan oinarritutako hiria eraikitzea, ohiko ingurunean ahalik eta denbora gehien egotea ahalbidetuko dieten zerbitzu eta baliabideen bitartez, betiere herritar guztien bizi-kalitate egokia bermatzeko asmoz.

NEURRIAK

1. Nahi ez den bakardadea prebenitzeko udal estrategia garatzea, pairatutako gizarte-hauskortasuneko egoera gainditzeko beharrezkoak diren baliabideak eragile publiko eta sozial guztiekin koordinatuta hedatuz, haien harreman-loturak berreskuratuz eta bizi-proiektuak berrezarrituz.
2. "Bilbo Hiri Adeitsua Adinekoekin" delako IV. Plana landu eta inplementatzea, adinekoak eraldaketa-eragiletzat inplikatur, Bilbo adinekoen premien eta eskarien arretarekin konprometitutako hiri bihurtuz.
3. Adinekoen parte-hartze soziala eta aisialdi aktiboa sustatzea, haien elkartegintza sustatuz erretiratuen zentroen nahiz eskualde-etxeen bitartez, eta herritar guztientzat dauden espazio eta jardueretan zein ad hoc sortutakoetan parte har dezatela bultzatuz.
4. Adinekoen bizialdi aro desberdinetan bizi-kalitate handienaz gozaten lagunduko dieten programak, proiektuak eta zerbitzuak sendotzea, Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua, Urrats Bat Gehiago programa, Begirada Aktiboa Berria programa, Zaintzea proiektua eta adinekoen beren ingurunean jarraitzea erraztuko dieten gainerako guztiak indartuz.
5. Gizarte-Zerbitzuei buruzko Legean zehaztutako bizitoki alternatiboetarako sarbidea erraztea, adinekoek, beharrezko laguntzarekin, modu independentean bizi izateko aukera izan dezaten ingurune normalizatu batean.
6. Adinekoentzako eguneko arreta-zentroak finkatzea, haien partaidetza eta autonomia pertsonala sustatuko dituzten proiektu berritzaileen bidez, hauskortasuna eta gizarte-isolamendua prebenitzeko.

2.3- BAZTERKETA ARRISKUAN DAUDEN PERTSONENTZAKO ARRETA

HELBURUA: Baliabide pertsonal, sozial edo ekonomiko egokiak eskaintzea, pertsona guztiak bizitza-proiektu independentea garatzeko aukera izan dezaten, talderik ahulenei oinarritzko beharrak estaltzeko moduko babes-mailetarako sarbidea erraztuz.

NEURRIAK

1. Banakako arreta goiztiarreko zerbitzua eskaintzea, bazterkeria-arriskuko egoerak detektatu eta egoera bakoitzari aplikatu beharreko irtenbideak zehazteko eta gizarte-inklusioa bultzatzeko.
2. Prestazio-sistema arin eta eraginkorra izatea gizarte-bazterkeriako egoerak prebenitzeko, arintzeko eta/edo saihesteko.
3. Gizarte-inklusiorako ibilbideak erraztuko dituzten esku-hartze sozial eta komunitarioko programak sustatu eta garatzea.
4. Etxerik Gabeko Pertsonen Udal Estrategia garatzea.
5. Gizarte-bazterkeriako egoeran dauden pertsonentzako eguneko arreta-zentroak harremanetarako zein atsedenerako espazio berritzailetzat finkatzea, haien oinarritzko beharrak estali, laguntza emozionala jaso eta laguntza pertsonaleko prozesuak errazteko aukera izan dezaten, gizarte eta hezkuntza arloetako esku-hartze eta esku-hartze psikosozial egokiak barne.
6. Gizarte-Zerbitzuen Plan Estrategikoan ezarritako ostatu-plazen ratioak betetzea, estaldura handituz erakundeen arteko lankidetzaren bitartez, gero eta aldakor eta zabalagoa den eskariari modu egokian erantzun ahal izateko.
7. Belaunaldien arteko ostatu-eredu alternatiboetan aurrera egitea, inklusio komunitariorako ibilbideak sustatzeko.
8. Adinekoen Elkarteak kudeatzen laguntzeko zerbitzua sortzea, kudeaketaren arloko profesional seniorrek osatutako talde baten laguntzaz, elkarte horietako organoetan erreleboa eta parte-hartzea sustatzeko.

2.4- GENERO-BERDINTASUNA ETA INDARKERIA MATXISTAREN BIKTIKA DIREN EMAKUMEENTZAKO ARRETA

HELBURUA: Bilbo genero-berdintasun eraginkorraren erreferentziatzeko hiri bihurtuko duten politika publikoak diseinatzea, eta bereziki gizartean nahiz eguneroko bizimoduan modu estrukturalen gertatzen den indarkeria matxista gainditzen laguntzea, eremu publikoan nahiz pribatuan.

NEURRIAK

1. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Udal Plana landu eta inplementatzea.
2. Bilboko Emakumeen Etxea sustatzea Telefonica eraikin zaharreko ekipamenduaren zati batean (Gorte kalea), Berdintasun Sailak egindako lanaren arabera eta 2021eko Aurrekontu-Proiektuan onartutako parte-hartze bidezko prozesuari kasu eginez.
3. Sexu Aniztasunerako Plan Estrategikoa lantzea.
4. Ahanduntze Eskola martxan jartzea.
5. Berdintasunaren aldeko Bilboko Emakumeen Kontseilua herritarren partaidetzarako organotzat dinamizatzea, hiriko bizitza politiko, kultural, ekonomiko eta sozialaren hainbat esparrutan emakumeen eta gizonen aukera-berdintasunaren printzipioa garatu eta bultzatuko dela bermatzeko.
6. Sexu-aniztasunerako LGTBQ Foroa bultzatzea.
7. Herritarrek eraso sexistei "0 Tolerantzia" adieraztea lortzea, auzoetako eragile sozial eta komunitario berriei emakumeen aurkako indarkeria matxistaren egoerak prebenitzeko eta indarkeria hau ezabatzearen aldeko borroka indartzeko sensibilizazioa eta prestakuntza emango dizkieten programen bitartez, eta beste erakunde batzuekiko koordinazioa hobetuz.
8. Hezkuntza arloko kanpainak eta ekintzak garatzea, jaietan eraso sexistak prebenitu eta ezabatzeko.
9. Genero nahiz Etxeko Indarkeriaren Biktimentzako Arreta Zerbitzua behar duten emakume eta adingabeen beharrak modu egokian artatuko direla bermatzea, gizarteratzeko nahiz laneratzeko eta etxebizitzarako sarbidea izateko laguntza berezia emanez da.
10. Gazteen artean berdintasunezko harreman-ereduen eraikuntza sustatzea, Ikastetxeetan Indarkeria Matxista Prebenitzeko eta Berdintasuna Sustatzeko Programa bultzatuz.
11. Genero-indarkeriaren biktimen aldeko 'justizia, egia eta erreparazioa' ekimenari atxikitako proiektuak gauzatzea.

2.5 - ANIZTASUNA ETA IMMIGRAZIOA

HELBURUA: Gizartearen ikuspegitik kohesionatuta dagoen Bilboren aldeko lana bultzatzea, gizartean dagoen aniztasunaren balioa aukeratzat kudeatuz eta bizikidetzaren aldeko hiritzat nabarmenduz.

NEURRIAK

1. Joan-etorrian dabiltzan pertsona migratzaileen kolektiboari eta Euskadira iristen diren errefuxiatuei beharrezko arreta ematen dieten gainerako erakundeekin lankidetzan jardutea.
2. Bazterkeria-arriskuan dauden eta adingabeak kargupean dituzten familia migratzaileei arreta eta babesa ematea.
3. Bazterkeria-arriskuan dauden pertsona migratzaileei laguntzeko aldi bateko ostatu-baliabideak finkatzea.
4. "Bilbo Kulturarteko Hiria" planari buruzko komunikazio estrategia berriak diseinatzea, herritartasun plural eta inklusiboaren balioak sustatzeko.
5. III Kulturarteko Hiria Plana inplementatzen jarraitzea.
6. Zurrumurruen aurkako gizarte-sentsibilizaziorako estrategiarekin aurrera egitea.
7. Gizarte-kalteberatasun handiagoa duten migratutako kolektiboekin eta familia-erreferenterik gabeko gazteekin esku hartzen jarraitzea.
8. Migraziorako Euskal Itun Sozialean jasotako bizikidetzaren aldeko konpromiso bateratua garatzea, udal eremuko harrera eta integraziorako esparrutzat.

2.6 - GARAPENERAKO LANKIDETZA

HELBURUA: Bilbok onartutako elkartasun globalaren aldeko konpromisoa finkatzea, pobretutako herrialdeetako garapen-prozesuak eraldatzen laguntzeko asmoz.

NEURRIAK

1. Bilbok pobretutako herrialdeen alde hartutako elkartasunezko konpromisoa handitu eta Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako Helburuekin lerrokatzea.
2. Lankidetzaren gardena eta arduratsua sustatzea, dirulaguntzak jasotzen dituzten erakundeekin, balorazio-irizpideekin eta aurrekontu-egikaritzearen inguruko informazio zehatzarekin eta ekintzen inpaktuari buruzko ebaluazioarekin.

3. Lankidetzaren kudeaketan eraginkortasuna areagotzea, lankidetzan diharduten gainerako euskal administrazioekiko eta GGKEekiko aliantzak sustatuz Garapenerako Lankidetzako Bilboko Kontseiluaren bitartez.
4. Lankidetzaren tekniko eta hiriz hirikoa bultzatzea.
5. GGKEekiko baterako ekintzak hobetzea.
6. Bilbotarrek lankidetzaren arloko politika eta proiektuei buruz duten ezagutza handitzea.

2.7 - ETXEBIZITZA

HELBURUA: Auzoen habitagarritasuna hobetzea eta erreferentziatzeko ingurunean bizikidetzaren egokiaz zuzentzeko duintasunezko etxebizitzaren ez duten pertsonentzako bizitoki arloko ekintzak garatzea, etxebizitza publikoen parkea eta zizkidurazko bizitokiak gehitzea.

NEURRIAK

1. Etxebizitzaren birgaikuntzari buruzko arreta, aholkularitza eta laguntzak emateko programa sortzea, baliabide ekonomiko eskaseko pertsonen eta horietan bizi direnen arrisku-kasuei arreta berezia emanez.
2. Gazteei egun emantzipatzeko eta bizitza-proiektu independentea hasteko aukera ematen dieten programetarako sarbidea erraztea.
3. Zuzkidurazko Bizitokiak alokairu-araubidean sustatzen eta garatzen jarraitzea, bereziki gazteei begira, emantzipatzeko aukera izan dezaten.
4. Irisgarritasunik gabeko etxebizitzak gazteen eskura jartzeko eta etxebizitza irisgarriekin trukatzeko programa aztertzea.
5. Gizarte-proiektuekin konprometitutako gazteentzako etxebizitza programari jarraipena ematea.
6. Bilboko Udalaren Etxebizitza-Eskubidearen aldeko Plan Estrategikoa landu eta inplementatzea.
7. Etxebizitza hutsen mobilizazioa aktibatzeke mekanismoak abian jartzea, etxebizitzarako egiazko eskubidean aurrera egiteko asmoz.
8. Lankidetzaren bidezko etxebizitzaren bizitegi-proiektu berriak bultzatzea, Hiri Antolamenduko Plan Nagusi berriak eskaintzen dituen aukerei erreparatuta.
9. Belaunaldien arteko hainbat proiektu bultzatzea, nahi ez den bakardadea prebenitzeko baliabidez.
10. Alokairuko etxebizitzak bultzatzea.

2.8 - OSASUN PUBLIKOA ETA KONTSUMO OSASUNGARRI ETA ARDURATSUA

HELBURUA: Hiriko pertsona guztiei sentsibilizazioa, informazioa eta laguntza ematea, ohitura eta bizi-baldintza osasungarriak zein osasun-sistema publikorako sarbidea izan ditzaten, oinarrizko eskubide bezala, kontsumo arduratsua sustatuz.

NEURRIAK

1. Osakidetzarekin eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailarekin lankidetzan jardutea Basurtuko Ospitalean handitzeko.
2. Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailarekin lankidetzan jardutea osasuna sustatzea xeden duten programak garatzeko, eta bizialdiko aro guztietan autozainketa eta ohitura eta jokabide osasungarriak bultzatzeko.
3. Ohitura osasungarriei buruzko kanpaina publikoak eta pedagogikoak garatzea.
4. Adinekoen kolektiboaren osasuna hobetzea helburu duten ekimenak areagotzea.
5. Osasun arloko prebentzioa indartzea, adin goiztiarrean eta nerabezaroan dauden herritarrei zuzendutako programen bitartez.
6. Udalaren Osasun Planean jasotako neurriak garatzea udalaren eskumeneko gai guztietan sakontzen jarraitzeko, osasuna sustatzeko programak eta planak garatuz.
7. Adikzioen VII. Plana (2023-2027) landu eta inplementatzea adikzioak identifikatu eta prebenitzeko, aro digitalarekin lotutako adikzioei eta adin goiztiarrenetako mendekotasun-arriskuei arreta berezia emanez.
8. Elikagaiak ikuskatzeko planak indartzea Bilboko merkataritza esparruan, ostalaritza lokaletan eta elikadura-industrietan, hirian kontsumitzen diren elikagaien kalitatea bermatzeko.
9. Udal Kontsumo Bulegoak kaltetutako pertsonen eta kexei lotutako produktu edo zerbitzuak hornitzen dituzten enpresen artean egiten duen bitartekaritza lanari eustea.
10. Udalak "Kontsumo Arduratsuaren Nazioarteko Egunarekin" hartu duen konpromisoa indartu eta horri buruzko jarduerak antolatzea, herritarrei ekonomia sozial eta solidarioa ikusarazteko, eta kontsumo arduratsuak pertsonarik ahulenen mesedeko aukerak sortzeko eraldaketa-eragiletzat duen garrantzia jakinarazteko.
11. Kontsumo arduratsuaren aldeko gizarte eta auzo ekimenak sustatzea Bilboko auzoetan.

3.

GAZTERIA, BALIOEN GARAPENA, HEZKUNTZA ETA PRESTAKUNTZA

Aurrera, batera!
Bilbao
Mira al futuro

Edozein hirirentzat funtsezkoa da etorkizunera begiratzea. Eta etorkizuna, zer esanik ez, gazteek eraikitzen dute. Ilusioak, proiektu profesionalak eta garatzeko moduko bizitza-proiektuak dituzten gazteek. Gure hiriko dinamiketan giltzarrizko eginkizuna izan nahi duten gazteek. Hiri hobea eraikitzeko iritziak azaldu eta proposamenak egin nahi dituzten gazteek.

Bestalde, kalitaterik goreneko hezkuntza eta prestakuntza izateak lehenasunezko helburua izan behar du edozein hirirentzat. Hezkuntza eta prestakuntza dira gure inbertsio nagusia, etorkizuneko apustu nagusia. Baina apustu horrek ez ditu bakarrik ezaguera teknikoak kontuan hartu behar. Horiekin batera, bizitzarako prestaketa eta balio sendoen garapena ziurtatu behar ditu.

Gazteriaren arloan, zken 4 urteotan, garrantzi handiko proiektuak abiarazi ditugu gazteen parte-hartzea sustatu eta errazteko eta hiriari gazteen ikuspegia gehitzeko. Hezkuntza arloan, haurreskola publikoen udal eskaintza finkatzen jarraitu dugu, eta Bilbo kalitatezko eskaintza zabala duen unibertsitate-hiritzat indartu dugu. Horrez gain, hirian partekatutako balioak bultzatzea xede duen "Bilbao, Balioen Hiria" funtsezko proiektutzat finkatu dugu.

Gure etorkizuneko erronka nagusia, zalantzarik gabe, Bilbo gazteagoa egitea da. Hiria gazte mantendu behar dugu, aukerez eta erakargarritasunez betea talenturik onena atxiki eta erakartzeko, gazteei kalitatezko enplegurako eta duintasunezko etxebizitzako sarbidea bermatuz, emantzipatzeko eta nahi dituzten bizitza-proiektuak garatzeko aukera izan dezaten. Unibertsitatearen pisua handiagoa duen hiria. Prestakuntza etorkizuneko aktibo nagusitzat jotzen duen hiria. Horrez gain, nahitaezkoa da familiak babesten eta laguntzen jarraitzea, bizitza-pertsonala, familia-bizitza eta-lan bizitza uztartzeko behar adinako baliabideak dituen udalerrri bihurtzearen alde apustu eginez.

Bilboko balioak garatzen jarraituko dugu. Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako Helburuekin (GJH) erabat lerrokatuta dauden balioak.

3.1 - GAZTERIA

HELBURUA: Bilbo "hiri gaztea" bihurtuko duten gazteria arloko politiken udal estrategia antolatzea, gazteei ahalik eta garapen-aukerarik handienak eskainiz eta etorkizuneko Bilboren eraikuntzan parte-hartze aktiboa izango dutela bermatuz.

NEURRIAK

1. Bilbao Hiri Gaztea 2022-2025 gazteria arloko estrategia berrian aurreikusitako ekintzak garatzea.
2. Ume, nerabe eta gazteentzako hurbileko ekipamenduen sarea hobetzea, La Perrera eraikineko eta Itxaropen Kaleko Frontoiko erreferentziatzko guneei arreta berezia emanez.
3. Nerabeen artean aisia eta kirola sustatzea xede duen "GazteKLUBA" programarekin jarraitzea.
4. Gazte eta nerabeekiko informazio eta komunikazio kanalak sendotzea.
5. Emantzipazioko bizitza-proiektuak erraztea, gazteen beren-beregi zuzendta dauden etxebizitza eta enplegu arloetako politiken bitartez.
6. Haurtzarotik zientzia, teknologia eta berrikuntzarekiko jakin-mina sustatzea. Bilboko ume eta gazteei STEAM (Zientzia, Teknologia, Ingeniaritza, Artea eta Matematika) gaitasunak garatzeko aukera emango dieten ekimenak bultzatzea, La Perrera eraikineko Maker Gunea kasu.
7. Konekta programa Bilboko gazteentzako harreman eta zerbitzuetarako espazio berritzailetzat bultzatzea.
8. Umeen eta gazteen parte-hartzea berariaz sustatzea.
9. Bilbo gazteentzako hiritzat posizionatzea.
10. Ikasteko gelak edo gunek inplementatzen jarraitzea gazteentzat.

3.2 - MEMORIA HISTORIKOA, BALIOEN ETA GJH-EN GARAPENA

HELBURUA: Bilbo balioen hiri bihurtzea, herritarrek nahiz hiriko eragile eta enpresek gizarte-kohesioan eta garapen jasangarrrian aurrera egiten lagunduko duten balioak partekatu eta bete ditzaten.

NEURRIAK

1. Hiriko Memoria Historia berreskuratu eta ezagutzera emango dela bermatzea.
2. Bakearen eta Bizikidetzaren aldeko Bilboko Topaguneari jarraipena ematea, adiskidetzearen aldeko bidean eta biktimen eskutik aurrera egingo duen adostasunezko esparrutzat.
3. "Bilboko Balioen Agirian" bildutako balioak udal jarduera osoan ezartzen jarraitzea, bereziki udal planetan eta umeekin nahiz nerabeekin lotutako proiektuetan.
4. Enpresa eta elkarte gehiago "Bilboko Balioen Agiriarekin" konprometitzen jarraitzea, balioen bat edo batzuk auzoan, barrutian zein hiri mailan garatzeko sustatu dituzten proiektuak aitortuz.
5. "Bilbao, Balioen Hiria" proiektua parte-hartzearen bitartez garatzen jarraitzea, horri dagokion Batzordea indartuz eta horren jarduerak ezagutzera emanez.
6. Bilbo nazioartean GJHak garatzen diharduen Balioen Hiritzat posizionatzea, nazioarteko foro eta sareetan.
7. Udal jarduera osoa Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako Helburuen eta 2030 Agendaren printzipioen arabera egituratzea. Horretarako, 2030 Agenda "lokalizatze" lan aktiboa egingo da, hiriko eragileen artean sozializatuz, herritarren artean zein enpresa eta elkarteetan, 2030 Agenda Lokalizatze Ekintza Planaren bitartez.
8. Bilbok GJHen lokalizazioaren arloan duen lidergoa bultzatzea. Etengabeko lankidetzaren instituzionala egoitza iraunkorra Bilbon duen Local 2030 Koalizioaren idazkaritzarekin.

3.3 - HAURRAK ETA FAMILIA

HELBURUA: Adingabeei, nerabeei eta hauen familiei arreta pertsonalizatua eta laguntza-zerbitzuak eskaintzea, detekzio goiztiarrean ahalegin berezia eginez haien babesa bermatu ahal izateko.

NEURRIAK

1. Bilboko Ume eta Nerabeen III. Udal Plana landu eta abian jartzea, ume eta nerabeen eskubideak garatzea xede duten neurriak bultzatuz eta herritarren lankidetzeta eta erakundeen arteko koordinazioa dinamizatuz politika hauen etengabeko hobekuntza eta garapena errazteko.
2. Ume eta Nerabeen Udal Kontseilua handitzea, hiriko ume eta nerabeen parte-hartze eta ordezkaritzarako organo iraunkortzat, hiriaren eraikuntzan umeen begirada kontuan hartuz.
3. UNICEFek emandako zigilua berritzea, aurrerantzean ere Bilbok umeekin adiskidetsua den hiriaren aitopenari euts diezaion.
4. Jardunbide egokiak eta ikaskuntzak partekatzeko esparruak sortzea, hiria umeen ikuspegitik eraldatzeko asmoz, Haurren Hirien Sarean bildutako esperientzia finkatuz.
5. Arrisku-egoeran dauden ume eta nerabeei arreta eta babes ematea xede duten gizarte eta hezkuntza arloetako programak eta zerbitzuak zein izaera psikosozialekoak eta asistentzialekoak garatu eta finkatzea, betiere babesgabetasunezko arrisku-egoeren prebentzioa eta detekzio goiztiarra helburutzat hartuz, Bizkaiko Foru Aldundiko Umeen Zerbitzuarekin nahiz Eusko Jaurlaritzako osasun eta hezkuntza sistemekin batera landutako balorazio diagnostiko egokiaren bitartez.

3.4 - HEZKUNTZA

HELBURUA: Bilbon hezkuntzaren kalitatearen hobekuntza bultzatzea, herritarrekiko eta hezkuntza-komunitatearekiko elkarriketari arreta berezia emanez.

NEURRIAK

1. Haurreskoletako plaza-kopurua handitzea hiriko auzoetan.
2. Legeriak Eusko Jaurlaritzari aitortzen dizkion eskumen zabalak ezagututa ere, ikastetxe publikoak hobetzeko inbertsioak egitea eta mantentzea, hiriko hezkuntza-instalazioek kalitate egokia izan dezaten.
3. Bilboko ikastetxe publikoetako zuzendaritza-taldeak indartzea Eusko Jaurlaritzarekin batera.
4. Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan jardutea Bilboko Eskola Mapa eguneratzeko.
5. Gazteei ikasteko ahalik eta plaza-kopururik handiena bermatzea, azterketa-garaietara egokitutako ordutegi malguak eskainiz.
6. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarekin lankidetzan jardutea, eskolaz kanpoko ordutegietan ikastetxe publikoetako instalazioetan hezkuntza eta kirol arloetako jarduerak garatu ahal izateko.
7. Gizarte eta hezkuntza arloetako laguntza-tailerren programa handitzea.
8. Hiri Hezitzaileen Nazioarteko Elkartean (AICE) modu aktiboan parte hartzea eta Hiri Hezitzaileen Agirian ezarritako konpromisoak betetzea.

3.5 - BILBO, UNIBERTSITATE ETA EZAGUTZA HIRIA

HELBURUA: Gaikuntza eta pertsonen, enpresen zein hiriko eragile garrantzitsuen arteko ezagutza sustatzea, eta nazioartean Bilbo talenturik onena erakartzeko gaitasuna duen kalitatezko prestakuntza-eskaintzaz hornitutako hiritzat posizionatzea.

NEURRIAK

1. Bilbon unibertsitate arloko zein lanbide-heziketako bikaintasunezko prestakuntza-eskaintza berria finkatzeko esparru fisikoak definitu eta erraztea.
2. UPV/EHUren Medikuntza Fakultate berria garatzen laguntzea.
3. Hiriko unibertsitate-prestakuntzaren eskaintzari lotutako ikerketa-jarduerak garatzeko esparru fisikoak definitu eta erraztea.
4. Hirian finkatutako unibertsitateekin lankidetzan jarraitzea.
5. Bilbo unibertsitate-hiritzat duen posizionamendua indartzea, Estatuko zein nazioarteko ikasleak erakartzeko gaitasuna izan dezan, bereziki gradu ondoko eta master mailako ikasketetan eta izaera tekniko eta teknologikoko gaietan.
6. Enpresaren eta unibertsitatearen arteko interakzioa erraztuko duen ekosistema sortzea, hirian prestakuntza-eskaintza berritzailea eta ezagutza trinkoa tarteko duten enpresa-ekimen berriak ezartzeko.
7. Bilbok udan unibertsitate-jarduerak (Udako Ikastaroak) erakartzeko duen gaitasuna sendotzea.

4. KULTURA ETA KIROLA

Aurrera, batera!
Bilbao
Mira al futuro

Kultur jarduera zabala duen hirian bizi gara, eta honek, bilbotarren gozamina areagotzeaz gain, hiriko dinamika turistikoei ere eragiten die, kalitatezko turismoa erakarriz, gure kultura eta nortasunari buruzko jakin-minak bultzatuta. Kulturgintza hiri osoan garatzen da maila globalean, eta gure auzoetan ere bai. Sektore dinamikoa da, baita sektore ekonomiko garrantzitsua ere.

Azken 4 urteotan, COVID-19aren pandemiak kultura munduari ekarri dizkion zailtasunen gainetik, aurrera egiten jarraitu dugu Bilbo erreferentziatzko kultura-hiria izan dadin. Epe luzeko kultura-estrategia dugu, eta honen bidez, funtsezko kultura-ekipamenduak zabaltzen eta berritzen jarraituko dugu, hala nola Arte Ederren Museoa, Euskal Museoa edo Bilbao Arte, kulturaren arlo guztietako ekimenak babestuz eta gure kultura-eskaintzak nazioarteko izaera handiagoa izan dezala erraztuz.

70.000 bilbotar baino gehiago daude Bilbao Kirolak erakundearen abonatuak. Udalaren kirol-instalazioen eskaintza zabalak zerbitzua ematen die hainbat erakunde, klub eta ikastetxeri, eta urterik urte, kirol-ekitaldi ugari antolatu ohi ditugu, formatu txikikoak auzoetan nahiz nazioarteko oihartzuna duten erreferentziatzko ekitaldi jendetsuak. Baina gehiago nahi dugu, eta gehiago behar dugu. Izan ere, kirola pertsonen bizitzaren erdigunean kokatu da. Horrekin batera, kalean ere jarduera fisikoa sustatzeko lan egingo dugu osasunaren, gizarte-koehsiaren zein aisialdiaren mesedetan, udalaren kirol-ekipamenduen eskaintza eta horietan garatzen diren jarduerak berrituz eta zabalduz.

4.1 - KULTURA

HELBURUA: Kultura Bilbon modu integralean garatzea, ikuspegi bikoitzetik begiratuta: herritarren gozamen eta aberaste pertsonalerako tresna bezala eta tokiko ekonomia dinamizatzeko jarduera bezala.

NEURRIAK

1. Kulturaren 2023-2033ko Plan Estrategikoan jasotako neurriak garatzea, eragile garrantzizko eragile guztien parte-hartzeaz.
2. Bilboko Arte Ederren Museoaren garapen museologikoa babestea.
3. Bilboko Udalak Guggenheim Bilbao Museoarekin duen loturari eustea, hiriaren ikonoa eta motor ekonomiko eta kulturala den heinean.
4. Bilboko kultur eskaintza dibertsifikatzen jarraitzea, bereziki antzerkian, zineman, musikan, pinturan, eskulturan, dantzan, argazkilaritzan, komikian eta abarretan.
5. Kultur eskaintza nazioartekoagoa erakartzea, beste hiri batzuekin sinatutako kultur akordioen bitartez. Garrantzizko kultur ekitaldiak erakartzea bertako herritarren gozamenerako nahiz turismo kultural iraunkorraren garapenerako.
6. Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaoren hurbiltasunezko ekipamendua indartzea kulturaren hiriko elementu dinamizatzaileztat, kultura garaikidearekin lotutako programen abangoardiak kokatuz.
7. Arriaga Antzokia formatu txikiko entsegu eta erakustaldietarako areto batez hornitzeko aukera aztertzea.
8. Euskal Museoaren garapen museistiko eta museografikoa babestea, euskal kulturaren nazioarteko erreferentetza posizionatzeko.
9. Barrutietako Udaltegietan kultur jarduerak eta ekitaldiak indartzea, kultura auzoetara hedatuz, eta Udaltegietako ekitaldi-aretoen horniketa hobetzen jarraitzea.
10. BilbaoArte eta Harrobia bezalako instrumentuen potentzialtasunaz baliatzea kultur sorkuntza berritzaileagoa bultzatzeko, Otxarkoagako Open Gela espazioaren irekiera aprobetxatuz.
11. Pabellón 6 handitu eta bertako ekipamendua hobetzea.

12. Gure nortasunaren elementuei lotutako kultur eskaintza indartzea (Aste Nagusia, Basque Fest, auzoetako kultur ekitaldiak,...).
13. Hiriko kultur eskaintzaren barruan dauden kulturantzazko elementuak sustatzea.
14. Bilbao Musikaren jarduera bultzatzea hirian dagoen prestakuntza musikaleko eskari gero eta handiagoari erantzuteko, irakaskuntza-jarduera berrantolatzeke espazio berriak bilatzeaz gain.
15. Bilbao Orkestra Sinfonikoa (BOS) hiriko musika-erreferentetzat sustatzea.
16. Bilboko Udal Musika Banda eta Txistulari Banda bultzatzea, hirian presentzia handiagoa izan dezatela erraztuz, eta Bilboko beste musika-erakunde batzuekiko lankidetzat sustatzea.
17. Gure hiriko lehen lerroko kultur eragileen entzute aktiboa sustatzea; hala nola, Bilbao Opera OLBE Elkartea, Bilboko Koral Elkartea, Filarmonikoa,...
18. Udal espazioak kultur erabilerarako atontzen eta egokitzen jarraitzea.
19. Udal liburutegietako ekipamendu higiezinena berritzea.
20. Barrutietako Kontseiluetako batzorde soziokulturalak indartzea.
21. Prestakuntza-erakundeekin lankidetzan jardutea, artista berrien laneratzea erraztuko duten praktikak eta esperientzia profesionalak ahalbidetzeko.
22. Publikoaren plana lantzea, egungo publikoak fidelizatu eta publiko berriak erakartzea xede duten estrategia berriak diseinatu ahal izateko, kultura arloko ondasun eta zerbitzuen eskaerari behar bezala erantzunez.
23. Kulturaren Udal Kontseilua sortzea.

4.2 - KIROLA

HELBURUA: Kirola aisialdi osasungarriaren mesedeko tresna estragikotzat bultzatzea, kirol instalazio hurbilak, merkeak eta kalitatezkoak adin guztietako pertsonen eskura jarritz.

NEURRIAK

1. Kiroldegietarako eta Udalaren bestelako kirol ekipamenduetarako urte anitzeko inbertsio eta mantentze-lanen plana.
2. La Casillako Kiroldegia eraberritzeko lanak lizitatu eta abian jartzea.
3. Bilbao Kirolak 2022-2024 Plan Estrategikoan zehaztutako ekintzak garatzea.
4. Komunikazio eta marketin-kanpainak egitea, kirol-jarduerak eta kirolaren balioak sustatu eta zabaltzeko, pertsona ez-aktiboak kirol-praktikan txertatzeko helburu espezifikoarekin.
5. Irisgarritasun unibertsalaren ziurtagiria lortzeko beharrezko neurriak garatzea, halakorik ez duten kiroldegietan.
6. Kirol arloko dinamizazio-programak bultzatzea hiri-esparruan.
7. Kirol taldeekin lankidetzan jardutea udal esparruen lagapena egiteko, beraien jarduerak garatzeko aukera izan dezaten.
8. Kirol ikuspegia hirigintzan zein espazio publikoan modu antolatuan sartzea.
9. Espazio publikoan dagoen kirol ekipamenduen eskaintza handitzea.

5. BIZIKIDETZA ETA SEGURTASUNA

Aurrera, batera!
Bilbao
Mira al futuro

Bilbo hiri segurua da. Halaxe egiaztatzen dute Estatuko, Europako eta mundu osoko neurri bereko beste eremu metropolitarrak batzuekin egindako konparazioetako datuek. Eta halaxe frogatzen dute egunez eguneko jardunak zein azken urteotan hirian antolatutako ditugun mundu mailako ekitaldiek ere.

Azken 4 urteotan, aurrerapauso adierazgarriak eman dira segurtasunaren arloan. Udako talde politiko guztiek sinatutako Segurtasunaren aldeko Itunean jasotako neurri guztiak inplementatu ditugu, Udaltzaingoaren kaleko presentzia areagotuz eta "hurbiltasunezko poliziaren" garapenean aurrera eginez, besteak beste. Eta segurtasuna indartu dugu Bilbon prebentzioaren ikuspegitik, Hirian izandako ekitaldi eta jende-pilaketa handietako segurtasunari eta merkataritzaren zein etxebizitzaren arreta berezia emanez, muturreko fenomenoek eragindako arriskuak gutxitzeaz gain.

Ez ditugu ahaztu behar Udaltzaingoak eta Suhiltzaileek eginten duten lan bikaina. Bilbotarrek aitortutako lana. Ez eta auzoetako segurtasun-tailerrak ere, herritarrei Bilboko Udaltzaingoan dagozkien erreferenteak hurbiltzeagatik.

Datozen 4 urteei begira, modu proaktiboan lan egiten jarraituko dugu gure auzoetako bizikidetzaren eta segurtasunaren bermatzeko, Segurtasunaren aldeko Ituna eguneratuz, izan ere, Bilbok hiri segurua izaten jarraitzea nahitaezkoa da gure hiriaren garapen ekonomiko eta soziala bermatu ahal izateko.

5.1 - BIZIKIDETZA

HELBURUA: Herritarren arteko bizikidetza hobetzea, gatazken prebentzio eta konponketa goiztiarraren bidez eta jokaera antosozialen kontrol eta zuzenketaren bitartez.

NEURRIAK

1. Hirian gizabidez jokatzearen aldeko gizarte-kontzientziaziorako kanpainak egiten jarraitzea, hiriko bizikidetza-giroaren pertzepzioa hobetuz, zarata, botiloia edo bandalismoa murrizteko.
2. Ikasleak bizikidetzaren arloan prestatzeko jarduerak bultzatzea.
3. Bizikidetzaren Behatokiak komunitate mailako gatazkak bitartekaritzaren bidez konpontzeko garatutako jardueren ikusgarritasuna areagotzea.
4. Bizikidetzaren Behatokiaren alderdi prebentiboa nabarmendu eta hiriko auzoetako funtsezko eragileekin duen etengabeko harremanari eustea.
5. Zurrumurruen Aurkako Proiektuari jarraipena ematea, gure hiriko bizikidetza hobetuz, Bilbon atzerriko immigrazioari lotutako estereotipoei aurre eginez, balio demokratikoak eta aniztasunarekiko errespetua sustatuz, eta gizarte-kohesioa sustatzeko bizikidetzan aurkitzen ditugun zailtasunak detektatuz eta landuz.
6. Polizia komunitarioaren eredia finkatzea. Udaltzaingoaren Polizia Komunitarioko unitateen lana sendotzea.
7. Polizia-lana egiteko sistema beste sail batzuekin batera hobetzea bizikidetzagatazkei dagokienez.
8. Poliziaren prebentzio eta esku-hartze sistemak hobetzea bizikidetzagatazketan, eta kasuistiken nahiz polizia-jardunerako prozeduren katalogoa definitzea horietako bakoitzerako.

5.2 - HERRITARREN SEGURTASUNA

HELBURUA: Hiriko delituen mailari eustea, Bilbon dagoen kriminalitate-tasa Estatuko gainerako eremu metropolitarretan dagoenaren atzetik mantenduz, eta segurtasunaren pertzepzio onari eustea, "oso ongi" kalifikaziotik hurbil, polizia-estrategia prebentiboak are gehiago indartuz.

NEURRIAK

1. Bilboko Herritarren Segurtasunaren aldeko Ituna eguneratzea, Herritarren Segurtasunerako politiken eta Udaltzaingoaren jardun-ereduaren inguruan ahalik eta adostasun politikorik handiena lortzeko, horrexetan sakonduz eta neurri berriekekin zabalduz.
2. Segurtasuneko Plan Estrategiko berria lantzea, Herritarren Segurtasunaren aldeko Itunean lortutako akordioak jasoz eta zehaztuz.
3. Udaltzaingoa 900 agenteko plantilla mantentzeko neurri egokiak hartzea.
4. Ertzaintzarekiko koordinazio-sistemen hobekuntzan aurrera egitea Euskal Segurtasun Sistemaren barruan, Ertzaintzarekiko interoperabilitatea hobetuz, Datu-base Bateratuen hobekuntzari arreta berezia emanez, geolokalizazio-sistema partekatua erabiliz eta polizia-inteligentziako zerbitzuen arteko konexioa hobetuz.
5. Herritarren Segurtasunerako Auzoko Tailerrekin jarraitzea, herritarrek segurtasun-politiken diagnostikoan, diseinuan, jarraipenean eta ebaluazioan parte hartzeko tresnatzat.
6. Bertako merkataritzaren segurtasuna hobetzen jarraitzea, merkatariekin eta hauen elkarteekin etengabeko harremana mantenduz, eta delituak eta iruzurrak prebenitzeko prestakuntza azpimarratuz eta merkatarien eta Segurtasun Arloaren arteko komunikazioa erraz dezakeen teknologiaren erabilera handiagoa sustatuz.
7. Trafiko-istripuak eta horien kaltegarritasuna murriztea, Bilbon antolatutako bide-segurtasunari buruzko prestakuntza eta informazio eta eragiketakanpainak indartuz, eta hirigunean orduko 30 km-ko abiadura-muga betetzeari arreta berezia emanez.
8. Parte-hartze bidezko segurtasun publikoaren eredu aurrera egitea, Bilboko auzoetan diharduten gizarte-eragileen parte-hartzea eta erantzunkidetasuna ardatz. Bilboko 100dik gora elkarteren parte-hartze egonkorra eta aldizkakoa

mantenduko dugu, eta Udaltzaingoko Polizia Komunitarioko unitateek ikastetxeekin, adinekoen egoitzekin, elkarteekin, kultur zentroekin, kirol klubekin eta abarrekin dituzten harremanak areagotuko ditugu, etengabeko entzute aktiboko sistema baten barruan.

9. Auzoetarako segurtasun-plan espezifikoak implementatzea.
10. Delituen salaketa internet bidez egiteko aukera erraztea.
11. Udaltzaingoarean telefono bidezko arreta hobetzea.
12. Auzo-Ikuskaritza (Komisaria) Santutxu-Boluetan.
13. Udaltzaingoarean prestakuntza hobetzea, bereziki kalteberak diren biktimei arreta emateko. Eta Biktimen Unitatearen lana bultzatzen jarraitzea.
14. Ertzaintzarekin partekatutako sistemak hobetzea, indarkeria matxistaren biktima diren emakume mehatxatuen arriskuaren ebaluazioa eta babesa hobetzeko. Pertsona hauek babesteko sistema elektronikoen inplementazioa.
15. Polizia-patrulletan hobekuntza informatikoak ezartzea.
16. Polizia-jardunean droneak sartzea.
17. Herritarren segurtasunerako patrulletan body-camerak sartzea.
18. Udaltzaingoa berdintasun-politiketan aurrera egitea, emakume polizien presentzia ehuneko 5 gehituz.
19. Udaltzaingoarean parke mugikorraren elektrifikazioa bizkortzea.
20. Hiriko auzoetan udaltzain uniformedun eta uniformerik gabekoen presentzia konbinatzea.

5.3 - BABES ZIBILA

HELBURUA: Bilbon segurtasuna prebentzioaren ikuspegitik bermatzea, hirian izandako ekitaldi eta jende-pilaketa handietako segurtasunari arreta berezia emanez, muturreko fenomenoek eragindako arriskuak, klima-aldaketaren ondorioak eta abar gutxitzeaz gain.

NEURRIAK

1. Segurtasuna bermatzea hirian antolatutako ekitaldi eta jende-pilaketa handietan, ekitaldiak diseinatzeko hasten diren unetik babes zibileko langileen parte-hartze aktibotik abiatuta. Ekitaldien gauzatzearen kontrola eta autobabeserako planak ezartzea horrelakorik behar duten ekitaldietan.
2. Jende-pilaketa handiko jarduerak ikuskatzeko kanpaina berria.
3. Larrialdietako Udal Plana eguneratu eta plataforma digital bat ezartzea, modu koordinatuan eta udal sail guztien inplikazioaz kudeatu ahal izateko.
4. Herritarrik kalteberenak prebentzio-ekintza espezifikoetara buruz sentsibilizatzea.
5. Prebentzio zein esku-hartze zerbitzuen egitura eta baliabide materialak egokitzea, arrisku-egoerei erantzun egokia emango zaiela bermatzeko.
6. Operazio-parkeen egitura behar bezala optimizatu eta dimentsionatuko duen Plan Zuzentzaile Operatibo osoa garatzea, Deustu aldean suhiltzaile-parke berri bat eraikitzea barne.
7. Prebentzio zein esku-hartze zerbitzuetako langileen gaitasunak eguneratzeko prestakuntza-plan integrala garatzea, klima-aldaketarekin eta abarrekin lotutako arrisku-errealitate berrien aurre egiteko.



6. HIRI-ERALDAKETA JASANGARRIA

Aurrera, batera!
Bilbao
Mira al futuro

Bilbo da, zalantzarik gabe, hiri postindustrial bat zerbitzu-hiri modernoa bihurtzeko hiri-eraldaketa eredurik onenetakoa, eta halaxe aitortu dute behin eta berriz nazioartean. Baina Bilboko hiri-eraldaketa aurrera jarraitu behar du, hiri jasangarriagoa eta orekatuagoa lortzeko.

Lau urte hauetan Hiri Antolamenduko Plan Nagusi berria onartu dugu, datozen 20 urteetan hiriaren garapena gidatuko duen ibilbide-orria. Eta herritarren parte-hartze prozesu zabal baten bitartez egin dugu, ia 4.000 bilbotarren inplikazioari esker. Bilbao Intermodal geltokia martxan jarri dugu, bultzada handia eman diogu auzoetako irisgarritasunari hiri osoan beste 42 igogailu eraikiz, eta Abiadura Handiko Trena Bilbora lurrazpitik iristeko soluzioa garatzeko protokoloa sinatzea lortu dugu.

Aurrerantzean, ilusioz beteriko 4 urte ditugu hiri-eraldaketa arloan. Jasangarritasunaren erronka handia ardatz, energia berriztagarriak, energia-eraginkortasuna eta hiri-hondakinen murrizketa, berrerabilpena eta birziklapena bultzatuko ditugu. Zorrotzurre garatzeko, Artxanda eta itsasadarra biziberritzeko eta hiria AHTaren iritsierarako prestatzeko aukerak barne, trenbidea Zorrotzan lurperatzeko proiektua eta Abandoko geltokiarena hiri-proiektu handiak bihurtuz. Eta gure auzoen eraldaketari arreta berezia emanez.

6.1 – HIRI-ESPARRUAN GAUZATU BEHARREKO ESKU-HARTZE NAGUSIAK

HELBURUA: Hirian egin beharreko etorkizuneko hirigintza-erlaldaketen oinarriak finkatzea, behar bereziak dituzten auzoetan nahiz hiriko aukera-esparruetan hiri-birgaikuntzari eta berritze-prozesuari jarraipena emanez.

NEURRIAK

1. Zorrotzaurreko UE1 egikaritze-unitateko urbanizazioak amaitu eta AI2 jarduketa integratua urbanizatzen hasia.
2. Abandoko geltoki berriaren esparruaren definizioa: eraikuntza-proiektua eta Master Plana.
3. Peñascaleko Plan Bereziaren behin-betiko onartu eta lehen faseari hasiera ematea Peñascal auzoaren erabateko berrikuntza garatzeko, irisgarritasunaren arloko arazoak konponduz eta auzoko bizi-kalitatea hobetuz, Eusko Jaurlaritzarekiko lankidetzaren bitartez ahalbidetuko diren ostatu-emateen laguntzaz.
4. Zorrotzako Muturreko Hirigintza-Antolamendua onartzea, Zorrotza auzoaren bizitegi-garapena itsasadarrerantz luzatzeko, jarduera ekonomikoetarako eta ekipamendu berrietarako espazio berriak sortuz.
5. Itsasadarraren bi aldeak lotzeko zubi berrien definizioa: tranbiaren zubia, oinezko eta bizikleten zubia Olabeagatik Zorrotzaurreraino, eta oinezko eta bizikleten zubia Sarrikotik Zorrotzaurreraino.
6. Maria Diaz Haroko eta Rodríguez Arias kaleak urbanizatzeko lanekin jarraitzea.
7. Arte Ederren Museoa eta Euskal Museoa handitzeko lanak gauzatzea.
8. Pabellón 6 eta Garabia proiektuak gauzatzea Zorrotzaurren.
9. Artxanda Dinamizatzeko Plana idaztea herritarren aisialdia eta gozamena sustatzeko, hiriaren erreferentziazko natur-eremuaren izaera indartuz.
10. Itsasadarreko Erabileren Plana idaztea, horren inguruko aisia, kirol eta kultura arloetako jarduerak antolatu eta sustatzeko.
11. Ondarearen Plan Berezia idaztea, Bilbon dauden eraikin, eraikuntza-multzo eta elementu berezien (garabiak, labeak, eskulturak...) babesa arautzeko.

12. Zorrotzako Muturreko pasealekua handitzea.
13. FEVE Zorrotzan lurperatzeko proiektua kofinantzatzea.
14. Paisaia-proiektua gauzatzea Begoñako hilerri zaharrean.
15. Autonomia kalea eraberritzeko proiektua zehaztea.
16. "Auzo-Bihotzen" garapenarekin jarraitzea, Barrutietako Kontseiluetan horien definizioa eta diseinua adostuz eta horietarako irisgarritasuna hobetuz.
17. Erakunde eskudunekin lankidetzan jardutea Metroaren 4. linea garatzeko.
18. Bizkaiko Foru Aldundiarekin lankidetzan jardutea, Errekaldeko Saihesbidea desagerrarazteko behar diren neurriak bultzatuz.
19. "Auzokide Plana 2023-2027" planaren bidez auzoak etengabe hobetzearen aldeko apustuarekin aurrera jarraitzea. Honek 48 milioi euroko inbertsioa ekarriko du, gutxienez, herritarrek eta Bilboko eragile politiko eta sozialek Hiriko Barrutietako Kontseiluen bitartez lehenetsitako hobekuntza-lanak eta jarduketak gauzatzeko.

6.2 - ESPAZIO PUBLIKOA

HELBURUA: Espazio publikoa egokitu eta horren erabilera hobea sustatzea, bertan hiriaren intereseko izaera sozial, kultural eta komertzialeko jarderak eta ekitaldiak garatuz. Ekitaldi hauek behar bezalako oreka lortu beharko dute bizikidetzaren errazteko eta auzoak dinamizatzen laguntzeko.

NEURRIAK

1. Auzoetako jarduerak egiteko erabiltzen diren plazak eta espazio publikoak horien garapena errazteko behar diren azpiegituz hornitzen jarraitzea (argi-arguneak, ur-harguneak,...).
2. Ekitaldiak eta jarduerak modu orekatuan baimentzea datei eta kokapenei dagokienez, horien garapena inguruko auzokideen atsedenearekin bateragarria izan dadin.
3. Auzoetako kaleak egokitzen jarraitzea horien merkataritza eta ostalaritza erabilerak egonlekuen eta oinezkoentzako ibilbide eroso eta irisgarrien behararekin bateragarriak egiteko.

4. Hiriko kaleen garbiketa eta kontserbazioa hobetzen jarraitzea.
5. Hiriko argiztapena hobetzen jarraitzea, argiztapen murrizteko inguruneei, auzoetako merkataritza esparruei eta hiriko eraikin eta plazetako argiztapen apaingarriari arreta berezia emanez.
6. Espazio publikoaren okupazioei buruzko arauak betetzen direla egiaztatzeko kontrolak areagotzea, aldi bateko okupazioetan (aldamioak, obrak, ekitaldiak) zein iraunkorretan (terrazak).

6.3 - JASANGARRITASUNA, INGURUMENA ETA BERDEGUNEAK

HELBURUA: Hiri-eredu jasangarriagoaren garapenean aurrera egiten jarraitzea, energiaren eta uraren kontsumoa zein hiri-hondakinak murriztuz, eta Eraztun Berdea indartzen eta herritarrak jasangarritasunaren balioan hezten jarraitzea.

NEURRIAK

1. Jasangarritasunaren eta energia-eraginkortasunaren irizpideak txertatzea eremu bakoitzari dagokion baldintza fotometrikoak zehaztuz, behar dena baino ez argiztatzeko, eta ahalik eta modurik eraginkorrenean.
2. Telekudeaketa-elementu berriak instalatzea, IoT (Internet of the Things) teknologia ezartzeko oinarrizko azpiegituretat, teknologia berriek gure hiriko jasangarritasuna hobetzeko eskaintzen duten potentzial osoa aprobetxatzeko asmoz.
3. Berdeguneen Ordenantza eguneratzea.
4. Parkeak Dinamizatzeko Plana garatzen jarraitzea, berdegune horietan ditugun azpiegituren hobekuntzaren bitartez jarduera eta aukera berriak eskaintzeko asmoz.
5. Udalaren hiri-ortuak garatzen jarraitzea.
6. Pagasarriko natur ingurunea finkatu eta indartzea, Arraiz mendiaren ingurunea babesteko araudia horretara ere hedatuz eta inguruko baso eta zelaiak berreskuratzeko lanekin jarraituz.

7. Hiriko mendietan espezie autoktonoetako zuhaitzak landatzen jarraitzea, espezie aloktonoetakoak kentzen edo kontrolatzen diren bitartean.
8. Bilboko Zuhaitzen Mapa eta Basoa Kudeatzeko Plana lantzea.
9. Mendia Bilboko ikasleei hurbiltzea. Mendia ikasgela bihurtuta.
10. Naturan botatako zaborraren aurka borrokatzeko neurriak ezartzea.
11. Mendietan obretako hondakinak eta materialak uztearen aurkako borrokarekin jarraitzea.
12. GR228 homologazioa berritzea (trazadura berria Enekuri-Artxanda eta Buia eremuetan).
13. Suteak prebenitzeko lanak areagotzea, horretarako behar diren baliabide guztiak erabiliz.
14. Peñascaleko harrobiak natura-eremu horren zainketaren errespetuan oinarrituta izan ditzakeen balizko aisialdi-erabilerak aztertzea.
15. Energia-eranginkortasunari eusten dioten eraikuntza eta zaharberritze jasangarriak sustatzea.
16. Isurpenak murriztu eta Hiriko airearen kalitate handia bermatzea xede duten ekimen berriak garatzea.
17. Hondakinen Ordenantza onartzea, ekonomia zirkularrerako hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legea betez.
18. Bilboko hondakinen ekoizle handiei eta hiriko merkataritza-ardatz nagusiei zuzendutako gaikako bilketak diseinatzea, batez ere papera eta kartoia, materia organikoa, beira eta ontziak birziklatzeko.
19. Hondakinen Plana sustatzea eta inplementatzea "akitaldi garbiak" lortzeko, Bilboko ekitaldi handiak kudeatzeko udal politikaren bereizgarritzat.
20. Birziklapena sustatzeko eta horren garrantziaz kontzientziatzeko ekintzak garatzea, ostalaritza, jatetxe eta catering sektoreetako hondakinen kudeaketari arreta berezia emanez.
21. "Bilbo hobetuz" app-a sustatzen jarraitzea.

22. Herritarrek intentsitate handiz erabiltzen dituzten baso-parkeetan, batez ere Arraizen, baina baita Pagasarrin eta Arnotegin ere, solte dauden abereen presentzia murrizteko jarduerak ezartzea.
23. Hirian energia berriztagarriak garatzearen aldeko apustu integrala. Hirian energia berriztagarriko sorkuntza-sistemen eta eraikinetan birkarga elektrikorako guneen instalazioa sustatu eta erraztea. Instalazio berriztagarri berriak udal eraikin eta ekipamenduetan. Tokiko Energia Komunitateak bultzatzea.
24. Kanpoko argiteria-instalazioen auditoretza energetikoa egitea.
25. Hiriko argiteriaren berrikuntza areagotzea, teknologia berri eraginkorrago eta jasangarriagoen alde apustu eginez.
26. Argiteria Zerbitzuaren Agiria lantzea.
27. Argiztapen apaingarriari buruzko plan espezifiko lantzea.
28. Arro hidraulikoak naturalizatzea Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren lankidetzaz, euri-uren kudeaketari ikuspegi berri batetik helduz, alderdi hidrológicoak, ingurumenekoak eta sozialak drainatze jasangarriko hiri-sistemen erabilerarekin konbinatuz, euri handiko egoeretan saneamendu-sare metropolitarrak jasan beharreko karga murrizteko asmoz.

7. GARRAIOA, MUGIKORTASUNA ETA IRISGARRITASUNA

Aurrera, batera!
Bilbao
Mira al futuro

Bilbo mugikortasun jasangarriaren abangoardian dagoen hiria da.

Herritarrek oso balorazio ona ematen dioten garraio publikoaren sare hurbila, azkarra eta eraginkorra dugu. Azken urteotan, ingurune atseginagoak sortu ditugu oinezkoentzat eta txirrindularientzat, bizikleta bidezko mugikortasunaren hedapenari garrantzi handiko bultzada emanez. Egun, 700 publiko baino gehiago eta 43 mailegu-gune ditugu eta BilbaoBizi zerbitzuak 30.000 abonatu baino gehiago ditu.

Datozen 4 urteotan, mugikortasun aktiboaren aldeko apustuan sakontzen jarraitu beharko dugu, garraio publikoari protagonismo handiagoa emanez. Auzoetako kalean hobetzen jarraituko dugu, herritar guztientzat atseginagoak eta irisgarriagoak izan daitezen, espaloiak handituz, zenbait ardatz oinezkoen eremu bihurtuz eta espaloiak beheratuz irisgarritasuna hobetu eta bide-segurtasuna indartzeko. Era berean, bidegorri eta bizikleta-bideen sarea eta hiriko bizikleta elektrikoaren sistema publikoa garatzen jarraituko dugu.

Garraio publikoa indartuko dugu jasangarriagoa izan dadin, Bilbobuseko autobusen flota berrituz unitate elektriko eta hibrido berriekin. Bilboren konektibitatea hobetzeko lan egingo dugu, Abiadura Handiko Trena hirira ekartzeko behar den guztia prestatuz.

Bilboko Auzoetarako Irisgarritasun Plana garatzen jarraituko dugu hiri-eredu inklusiboan aurrera egiteko, betiere aniztasun funtzionala duten pertsonen beharrak kontuan hartuz, eguneroko bizimodua eragozten duten oztopoak apurka-apurka kenduz eta pertsona horiek zerbitzu publikoetara duten irisgarritasuna hobetuz.

7.1 - MUGIKORTASUN JASANGARRIA

HELBURUA: Garraio publikoari, oinezkoei eta ziklistei protagonismo handiagoa ematen dien mugikortasun jasangarriaren ereduaren aurrera egiten jarraitzea, kutsadurarik eragiten ez duten garraiobideen mesedetan.

NEURRIAK

1. Hiriko autobus zerbitzua (Bilbobus) berritzea, unitate elektriko eta hibrido berriak sartuz
2. Bilbobuseko lineak egokitzeko azterlana.
3. Birkarga-gune publikoen kopurua handitzea ibilgailu elektrikoaren erabilera errazteko.
4. Bizikletak maileguan uzteko Bilbaobizi udal zerbitzuan erabilgarri dauden bizikleta eta mailegu-guneen kopurua handitzea.
5. Bidegorri-sarea handitzea.
6. Patinete elektrikoaren eta bestelako PMVen (Mugikortasun Pertsonalerako Ibilgailuak) ordenantza onartzea.
7. Tranbiaren geltoki berria Kañu Pasealekuan.
8. Taxi elektrikoa sustatzea.
9. TAO gune berriak sortzeko aukera aztertu eta herritarrekin kontsultatzea, eta, hala badagokio, TAO guneak zabaltzea.
10. Azken miliako banaketarako soluzio jasangarriak bultzatzea.
11. Oinezko erabilerarako gune berriak lortzea.
12. Bilbo konektatua. Bilboko aire, trenbide zein itsas konexioak hobetzea erakundeen arteko lankidetzaren bitartez. Bereziki, Abiadura Handiko Trena hirira iristeko behar den guztia prestatzea.

7.2 - IRISGARRITASUNA

HELBURUA: Hiri-eredu inklusiboan aurrera egitea, aniztasun funtzionala duten pertsonen beharrak kontuan hartuz, eguneroko bizimodua eragozten duten oztopoak apurka-apurka kenduz eta pertsona horiek zerbitzu publikoetara duten irisgarritasuna hobetuz.

NEURRIAK

1. "Bilboko Auzoetako Irisgarritasun Plana" garatzen jarraitzea, igogailuak inplementatzen jarraituz irisgarritasunaren arazoa konpontzeko beste aukerarik ez dagoen lekuetan nahiz mugikortasun-ardatz garrantzitsuetan, eta espazio publikoa egokitzuz irisgarritasuna hobetearren.
2. Udalak establezimendu eta zerbitzu publikoetan (liburutegiak, Udaltegiak, parkeak, aparkalekuak, antzokiak, etab.) egin ditzakeen irisgarritasunaren arloko hobekuntzen zerrenda egitea.
3. Garraio publikoa aniztasun funtzionala duten pertsonen egokitzeko prozesua areagotzea
4. Egokitutako taxiak sustatzen jarraitzea.
5. Auzokideen komunitateei irisgarritasunari buruzko arazoak konpontzen jarraitzea udal informazio zerbitzuaren bitartez, hobekuntza-lanetarako dirulaguntzak emanez eta esparru publikoaren lagapena eginez, atarietarako irisgarritasunaren arazoak konpontzeko beharrezkoa denean.
6. Espaloiak beharrezko lanekin jarraitzea hiriko auzo guztietan.
7. Aniztasun funtzionala duten pertsonen elkarrekin lankidetzan jardutea auzoetarako nahiz hiriko ekipamendu eta zerbitzu publikoetarako irisgarritasuna zehaztu eta hobetzeko.



8. AUZOEN GARAPENA

Aurrera, batera!
Bilbao
Mira al futuro

Bilbo hiri kohesionatua izatea da gure helburua, hirigintzaren nahiz gizartearen ikuspegitik. Bilbon auzo guztiek etorkizuneko proiektuen eskutik aurrerantz doan hiri erakargarri honetako protagonistak direla senti dezatela nahi dugu. Helburu honi begira, aurrerapauso handiak eman ditugu azken urteotan, gure hiria hiri-eraldaketa orekatu eta berritzailearen erreferente bihurtuz.

Baina beste pauso bat eman behar dugu oraindik hiriko auzoen etengabeko hobekuntzarako, irisgarritasunaren arazoak konponduz, kaleak atseginak eginez oinezkoen joan-etorriak errazteko, oinezkoentzako gune berriak sortuz, berdeguneak bultzatuz eta etxeen birgaikuntza babestuz.

Auzoen garapen ekonomiko eta soziala ere babestuko dugu, arreta berezia behar duten auzoei erreparatuz, hurbileko merkaritza sustatuz, kultura, kirol eta aisialdi arloetako jarduerak eta jarduera osasungarriak bultzatuz eta auzoetan gertuko Udaltzaingo komunitarioa garatuz.

Aurrera jarraituko dugu Auzokide Plana ekimenarekin, eta honen bidez, herritarrek nahiz Bilboko eragile politiko eta sozialek Hiriko Barrutietako Kontseiluen bitartez lehenetsitako hobekuntza-lanak eta jarduketak gauzatuko ditugu.

8.1 - AUZOEN GARAPENA. AUZO GUZTIETARAKO JARDUKETAK

HELBURUA: Hiriko auzo guztiak modu kohesionatu eta orekatuan garatzea, hirigintzaren zein ekonomiaren, gizakien eta gizartearen ikuspegitik, arreta berezia behar duten auzoetan ahalegin berezia eginez.

NEURRIAK

1. "Auzokide Plana 2023-2027" planaren bidez auzoak etengabe hobetzearen aldeko apustuarekin aurrera jarraitzea. Honek 48 milioi euroko inbertsioa ekarriko du, gutxienez, herritarrek eta Bilboko eragile politiko eta sozialek Hiriko Barrutietako Kontseiluen bitartez lehenetsitako hobekuntza-lanak eta jarduketak gauzatzeko.
2. Irisgarritasun Planari dagozkion esku-hartzeak barruti guztietan inplementatzen jarraitzea.
3. Hiriko bizikleta-sarea eta bizikletak mailegatzeko BilbaoBizi zerbitzua handitzea.
4. WIFI sarea barruti guztietan ezartzen jarraitzea.
5. Hurbileko merkataritza bultzatzea.
6. TAO gune berriak sortzeko aukera aztertu eta herritarrekin kontsultatzea, eta, hala badagokio, TAO guneak zabaltzea.
7. Auzoetan kultura, kirol eta aisialdi arloetako jarduerak eta jarduera osasungarriak bultzatzea.
8. Auzoetan Udaltzaingo komunitarioa, hots hurbilekoa, garatzea.
9. Umeentzako jolasgune estalien kopurua handitzea.
10. Galtzadak mantendu eta espaloiak jaisteko planarekin jarraitzea.
11. Auzoetako argiteria hobetzen jarraitzea.
12. Oinezkoen eremuak eta "auzo-bihotzak" sortzen jarraitzea.
13. Bideozaintzarako kamera berriak jartzea herritarren segurtasuna hobetzeko.
14. Bilbobuseko lineak egokitzeke azterlana.
15. Hondakinen kudeaketa, garbiketa eta zabor-bilketa hobetzeko ekintza berriak.

9. BILBO EUSKALDUNA

Aurrera, batera!
Bilbao
Mira al futuro

Euskara gure nortasunaren ezaugarri nagusietakoa da. Euskarak jatorriekin lotu eta nor garen adierazteaz gain, kokapen berezia ematen digu berezko izaeraren eta aukera globaletara irekitzearen arteko oreka aurkitzea funtsezkoa bihurtu den mundu globalizatu honetan.

Datozen 4 urteetarako, bi erronka nagusi ditugu Bilbon euskararen arloan. Lehenengo erronka euskararen erabilera soziala indartzea da. Euskarak presentzia handiagoa izan behar du kulturaren, kirolean, eskolan, unibertsitatean, saltokietan, enpresetan eta hiriko kaleetan. Horretarako, Euskararen Aholku Batzordea bultzatuko dugu, euskara bultzatu eta normalizatzearen aldeko konpromisoa duten Bilboko pertsonen eta erakundereen arteko topaketa eta partaidetzarako gune bezala egiten ari den garrantzi handiko lanaren ildotik.

Bigarren erronka Udalaren barruan euskara komunikazio-hizkuntzat erabil dadila bultzatzea da. Horretarako, Bilboko VII. Euskara Plana garatuko dugu, euskara herritarrei zerbitzua emateko eta Udaletxean lan egiteko hizkuntzat bultzatuz.

9.1 - EUSKARA HIRIAN

HELBURUA: Euskararen erabilera soziala indartzea eta, Udalaren lidergotik abiatuta, hiriko eragile sozial, kultural eta ekonomikoekin modu koordinatuan lan egitea.

NEURRIAK

1. Euskararen Aholku Batzordea bultzatzea.
2. Euskara sustatzen duten tokiko eragileekiko etengabeko koordinazioa eta babesa.
3. Bilboko Euskaltegietan matrikulazioa sustatzeko kanpainak.
4. Euskararen aldeko gizarte, erakunde zein parte-hartze bidezko ekimenetan modu aktiboan parte hartzea.
5. Euskarazko kultur adierazpideak (antzerkia, musika, literatura...) sustatzea.
6. Hiriko dinamika sozial desberdinetan euskararen erabilera sustatzeko kanpainak eta programak: merkataritzan eta ostalaritzan, kirolean eta aisialdian, besteak beste.

9.2 - EUSKARA UDALETXEAN

HELBURUA: Udalaren barruan euskara komunikazio-hizkuntzatzat erabil dadila bultzatzea.

NEURRIAK

1. Bilboko VII Euskara Plana garatzea.
2. Udal erakunde guztietan Euskara Planak bultzatu eta koordinatzea.
3. Udal zerbitzuek erabiltzen dituzten app, webgune eta tresna teknologikoetan euskararen erabilera bultzatzea.

10. UDAL HURBILA, MODERNOA ETA ERAGINKORRA

Aurrera, batera!
Bilbao
Mira al futuro

Bilbo ongien kudeatutako hirietakotzat jotzen dute nazioartean. Zero zorra izateaz gain, halaxe aitortzen dute nazioarteko hainbat sari eta aintzatespenek, kaudimenari buruzko adierazleek eta herritarrek udal zerbitzuekin duten gogobetetze-mailaren azterketen emaitzek.

Gainera, Udal irekia gara. Aspaldi-aspalditik, Barrutietako Kontseiluak funtsezko tresna bihurtu dira deszentralizazioan aurrera egiteko eta auzoetako giltzarrizko elkarte eta eragileen parte-hartzea bermatzeko, eta hainbat kontselu sektorial ditugu hiriko eragile eta entitateen parte-hartzea sustatzeko. Aldi berean, herritarren parte-hartze zuzena ahalbidetzeko mekanismoak finkatu ditugu, eta horiexei atxikita daude Parte Hartze bidezko Aurrekontuak eta partaidetza-prozesu nabarmen batzuk, Hiri Antolaketarako Plan Orokorra aldatzea helburu duena eta Segurtasun Tailerrena kasu.

Datozen urteetarako bi erronka nagusi ditugu. Alde batetik, herritarren zein gizartearen parte-hartzea errazteko ereduak sakontzen jarraitzea, adostasun zabalak sortuz eta Bilboko giza-garapen jasangarrian herritarren eta elkarten lankidetzara eta inplikazioa erraztuz. Bestetik, administrazio elektronikoaren arloan aurrera egitea, ez soilik tresna teknologikoak hobetuz "365/24 Udala" lortzeko, baita herritarren erabilera areagotuz ere, kolektibo kalteberei eta teknologia berrietan gutxien trebatuta daudenei beharrezko laguntza eskainiz, gure hirian "eten digitala" saihesteko asmoz.

10.1 - GARDENTASUNA ETA KONTUAK EMATEA

HELBURUA: Gardentasunaren eta kontuak ematearen arloan lortutako estandarrei eustea, eskaintako informazioa ulergarriagoa izateko eta ebaluazioetan lortutako emaitzei buruzko informazioa argitara emateko aurrera eginez, nagusiki.

NEURRIAK

1. Datozen 4 urteotan garatu beharreko lehentasunezko proiektuak biltzen dituen Gobernu Plana landu eta modu zabalean ezagutzera ematea.
2. Gobernu Planean bildutako proiektuen aurrerapenaren jarraipen gardena eta etengabea bermatzea www.bilbao.eus webgunearen bitartez.
3. "Udalaren Gardentasun Ataria - Bilbao Irekia" atalean bildutako edukiak ulerterrazagoak eta didaktikoagoak egitea, kontuak emateari arreta berezia emanez.
4. Gardentasunezko Zerbitzuaren Agiria lantzea.
5. Udalaren planei egindako jarraipen eta ebaluazioen emaitzen gardentasunezko argitalpena sustatzea.
6. Gobernantzaren estandarrak hobetzen jarraitzea, ELoGE ziurtagiri europarrak ezarritako zutabeetan oinarrituta.
7. Gobernantza, Berrikuntza eta Digitalizaziaren Udal Plana sortzea.

10.2 - HERRITARREN PARTE-HARTZEA

HELBURUA: Barrutietako Kontseiluak indartzea parte hartzeko eta erabakiak lantzeko funtsezko esparruak izan daitezen, herritarrek udal gaietan zuzenean parte hartzeko esparru, kanal eta prozesu berriak errazteaz gain.

NEURRIAK

1. Barrutietako Kontseiluak sustatzea, udal sailen harremanetarako zein kontuak emateko lehentasunezko esparruak izan daitezen. Horien funtzionamendu arinagoa eta eragingarriagoa lortzea.
2. "Parte-Hartze bidezko Aurrekontuen" elaborazioari lotutako zabalkunde-ekintzak indartzea.
3. Herritarren parte-hartzea errazten duten teknologia berriak sartzera, baita eztabaida handiagoa sustatzen duten partaidetza-metodologia berriak ere.

4. Herritarren parte-hartzea indartzea Udalaren plan eta programen elaborazioan nahiz ebaluazioan, baita herritarren laborategien esperientziak ere, udal zerbitzuak diseinatu eta birdiseinatzeko.
5. Kontseilu Sektorialak hiriko eragile eta entitateen parte-hartzea sustatzeko organotzat bultzatzea, egiturazko zein koiunturazko partaidetza-esparru berriak sortuz behar direnean.
6. Bilboko Hiri Kontseiluari protagonismo handiagoa ematea.

10.3 - e-ADMINISTRAZIOA, HERRITARREN ARRETA, MODERNIZAZIOA ETA KALITATEA

HELBURUA: Bikaintasunezko kudeaketan aurrera egiten jarraitzea kalitatezko zerbitzu publikoak modu eraginkor eta efizientean eskaintzeko, teknologia berriek zerbitzuak emateko nahiz Udalaren eta herritarren arteko interakzioak errazteko eskaintzen dituzten aukerez baliatuta.

NEURRIAK

1. Bilbo 2030 Eraldaketa Digitalerako Agenda ezartzea.
2. Administrazio elektronikoa bultzatzea Udaletan nahiz udal sozietateetan.
3. Herritarren artean e-Administrazioaren erabilera sustatzea, "365/24 Udala" delakoan aurrera egitea lortzeko. Prestakuntza-ekintzekin aurrera egiten jarraitzea, teknologia berrietan gutxien trebatuta dauden pertsonak eta kolektiboek e-Administrazioa udal zerbitzuak erabiltzeko modua izan dezaten.
4. Kolektibo kalteberei tramitazio digitalerako laguntza eta babes zerbitzua erraztea udal zerbitzuetan, eta herritarren gaikuntza.
5. Teknologia berrien erabilera bultzatzea zerbitzu berriak eskaintzeko eta/edo egun eskaintzen direnak hobetzeko.
6. Hiriko Datuen Plataforma ezartzea datuen gobernantza eta analitika aurreratua errazteko, baita adimen artifizialeko sistemak ere erabilera zehatz batzuetara, datuetan oinarritutako erabaki-hartzea eta zerbitzuen eraginkortasuna eta efizientzia hobetuz eta behar berriak zein zerbitzu berrien ezarpena hautemateko aukera erraztuz.
7. www.bilbao.eus webgunea hobetzea intuitiboagoa izan dadin, herritarrekiko interakzioa eta komunikazioa hobetuz.

8. Auzoetan bilbao.eus wifi sare publikoa hedatzen jarraitzea, espazio publikoan zein kultura eta kirol arloetako ekipamendu nagusietan, eten digitala murrizteko asmoz.
9. Udalaren Administrazio Elektronikoaren Plataforma berria abian jartzea, hainbat arlotan hobetutako zerbitzuekin: sarrerako eta irteerako erregistroa, jakinarazpenak eta komunikazioak, prozeduren definizioa, dokumentuen kudeaketa eta sinadura-agiriak.
10. Udalbek espedienteak kudeatzeko plataforma berritzea.
11. Proiektuak kudeatzeko tresna berria (Jira-Laguntza) garatzea, eskariaren kudeaketa eta proiektuen kudeaketa hobetzeko.
12. Geo Bilbaoren eboluzioa egitea.
13. "Herritarrentzako Zibersegurtasuna" proiektua garatzea, segurtasun digitalaren garrantziaz sentsibilizatzeko eta arrisku gehien duten kolektiboei (haurrak, gazteak, adinekoak eta abar) jarduteko jarraibideak eskaintzeko.
14. Eskubide Digitalen Agiria landu eta onartzea.
15. Irisgarritasunaren Udal Plana egitea, eta horretan irisgarritasunaren kontzeptu berri bat sartzea diskriminazio-mota guztiak saihesteko eta Bilbo gizarte inklusibo eta bidezkoa, gizarte modernoagoa eta hobea izateko aukera emateko.
16. Administrazioen arteko interoperatibitatean aurrera egiten jarraitzea, herritarrentzako administrazio-tramiteak ahalik eta gehien sinplifikatzeko asmoz.
17. Barrutietako Udaltegiak eguneratu eta hobetzea. Diseinu funtzionala eta udal ekipamendu berri baterako kokapena bilatzea Miribilla/San Adrianen. Zorrotzako Udaltegia abian jartzea.
18. Egungo Udal Zerbitzuen Katalogoa hobetzea intuitiboagoa izan dadin, herritarrentzako ulergarriagoa den hizkuntza erabiliz.
19. Zerbitzu Agiriak hedatzea, herritarrek eta Udalak udal zerbitzuei buruz dituzten eskubideak eta betebeharrak finkatzeko eta Udalak zerbitzuen kalitateari dagokionez hartutako konpromisoak zehazteko.
20. Udal planak lantzeko eta horien jarraipena eta ebaluazioa egiteko prozesuak estandarizatu eta homogeneizatzeko. Udal zerbitzu eta programen ebaluazioan sakontzea, horien etengabeko hobekuntza lortzeko ezinbesteko tresnatzat.
21. Udal arauen eta Bilboko herritarrentzat interes handikoak diren beste agiri batzuen irakurketa errazeko bertsioak egiten jarraitzea.
22. Kontratazio Berdearen Klausulen eta Klausula Sozialen Katalogoa handitzea eta horien erabilera Udalaren eta udal sozietateen kontrataziora zabaltzen jarraitzea.
23. Europar Proiektuen Bulegoa indartzea, udal inbertsio eta proiektuetarako finantzaketa bilatzeko tresnatzat.

10.4 - UDALA HERRITARREN ZERBITZURA

HELBURUA: Udaletxean lan egiten duten pertsonen kudeaketa aurreratua konfiguratzeko jarraitzea, herritarren mesedeko zerbitzuan duten inplikazioa sustatuz eta beraien lana ahalik eta kalitaterik onenez garatzeko behar dituzten baliabideak eskainiz.

NEURRIAK

1. Giza-Baliabideen Plan berria lantzea Udalaren zerbitzuko langileen belaunaldi-arteke ordezkapena errazteko, eta Lanpostuen Zerrenda udal zerbitzuen behar berrietara egokitzea.
2. Aldian-aldian Lan Eskaintza Publikoak deitzea, plaza hutsak betetzeko premia handiena duten udal zerbitzuei lehentasuna emanez.
3. Behin-behineko langileen tasa murrizten jarraitzea.
4. Desgaitasuna duten pertsonen udal lanpostuetara berdintasunezko sarbidea dutela bermatzeko prozesuak eguneratzea, beste erakunde publiko batzuekiko lankidetzaren areagotuz.
5. Karrera profesionala ezartzeko aukerari buruzko azterlanak eta analisiak, jardunaren ebaluazioa barne.
6. Udal funtzionarioen etengabeko prestakuntza bermatzea, haien lana betetzeko behar dituzten ezaguera eta tekniken inguruko edukirik berritzaileenei buruz.
7. Euskalduntzeko plan berriak bermatzea, bi hizkuntzetan emandako arreta-erakunde eskaintza handitzeko.
8. Udal langileak ordezkatzeko dituzten gizarte-eragileekiko etengabeko elkarrizketari eustea lan-baldintzak bermatzeko, negoziazio-mahaiaren bitartez, Segurtasun eta Osasun Batzordearen bitartez eta beharrezkoak diren bestelako adostasun-esparruen bitartez.

10.5 - ERAKUNDEEN ARTEKO LANKIDETZA ETA HARREMAN ESTRATEGIKOAK

HELBURUA: Koordinazio eta lankidetzaren mesedeko beharrezko aliantza eta harreman estrategikoak indartzea Bilboren giza-garapen jasangarrian zein Estatuan, Europan eta nazioartean duen erreferentziatzko posizionamenduan aurrera egin ahal izateko.

NEURRIAK

1. Bilbo-Bizkaia aliantza mantentzea Udalaren eta Foru Aldundiaren artean, bereziki gure hiriaren garapen ekonomiko eta kulturalari eta turismo iraunkorraren sustapenari dagokienez.
2. Eusko Jaurlaritzarekiko lankidetzari eustea Bilboko bizi-kalitaterako funtsezko gaietan: hezkuntza, gizarte-zerbitzuak, etxebizitza-politika, segurtasuna, eta garapen ekonomikoa eta enplegua.
3. Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioarekin eta gainerako euskal erakundeekin lankidetzan jardutea, Abiadura Handiko Trena Bilbora aurreikusitako epean irits dadila lortzeko eta Abandoko trenbide-lubakia lurperatzeak dakartzan aukerak profitatzeko.
4. Colaborar con el Ministerio de Fomento para hacer posible el soterramiento de la línea de FEVE a su paso por Zorrotza.
5. Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioarekin lankidetzan jarraitzea FEVEren trenbide Zorrotzan lurperatzea lortzeko.
6. Eusko Jaurlaritzarekin eta Bizkaiko Foru Aldundiarekin lankidetzan jardutea, Bilboren hegoaldeko auzoak (Irala eta Errekalde) hiriaren erdigunearekin trenbidez lotzeko.
7. Aireportuarekiko eta Bilboko Portuarekiko harreman estrategikoei eustea, aire zein itsaso bidezko konexioak lehiakortasun ekonomikoaren eta garapen sozialaren mesedeko giltzarrizko osagaitzat hobetzeko.
8. Bilbao Ría 2000 Euskal Administrazioen eta Estatuko Administrazio Orokorren arteko topagunetzat bultzatzea, azpiegiturei eta hiri-eraldaketari buruzko gaietarako.
9. Hiriko enpresa trakziogileekiko komunikazio eta lankidetzak kanalak sendotzea Bilborekin hartua duten konpromisoa indartzeko, enplegua sortzeko jarduera bultzatuz eta erabaki eta jarduera estrategikoetarako zentroak gure hirian mantenduz.

10. Gure hirian finkatutako unibertsitateekiko lan-foro egonkorra sortzea, azken urteotan Bilbo hiri gazteagoa egiten lagunduko duten bikaintasunezko prestakuntza-eskaintza eta ezinbesteko talentua erakartzeko egin den lanari jarraipena emanez.
11. Osagarritasunetik abiatuta, EAEko hiru hiriburuen arteko lankidetzaz sustatzea, hiruren intereseko esparrutan.
12. Gure hiria partaide duten elkarte eta sareetarik nahiz aldebiko lankidetzaz hitzarmenetatik abiatuta, beste hiri batzuetan garatutako jardunbide egokiak Bilbon aplikatzeak dakarren potentzialtasuna aprobetxatzen jarraitzea.
13. Bilbok GJHen lokalizazioan duen lidergoa bultzatzea. Erakundeen arteko lankidetzaz etengabea egoitza iraunkorra Bilbon duen Local 2030 Koalizioaren idazkaritzarekin.
14. Bilbo Nazioartekotzeko Estrategia hedatzea, bizitzeko, lan egiteko eta bisitatzeko erakargarria den hiriaren nazioarteko irudia eraikitzen jarraitzeko.
15. Zeharkako Nazioartekotze Mahai aholku-emailea sortzea, nazioarteko jardueraz koordinatzeko.
16. Hiri eta Tokiko Gobernu Batuen (CGLU) elkartean duen parte-hartzean sakontzea, eta bereziki Kultura Batzordean.



JARDUKETAK AUZO GUZTI-GUZTIETAN

Aurrera, batera!
Bilbao
Mira al futuro

AUZO GUZTIETARAKO NEURRIAK

- “Auzokide Plana 2023-2027” planaren bidez auzoak etengabe hobetzearen aldeko apustuarekin aurrera jarraitzea. Honek 48 milioi euroko inbertsioa ekarriko du, gutxienez, herritarrek eta Bilboko eragile politiko eta sozialek Hiriko Barrutietako Kontseiluen bitartez lehenetsitako hobekuntza-lanak eta jarduketak gauzatzeko.
- Irisgarritasun Planari dagozkion esku-hartzeak barruti guztietan inplementatzen jarraitzea.
- Hiriko bizikleta-sarea eta bizikletak mailegatzeko BilbaoBizi zerbitzua handitzea.
- WIFI sarea barruti guztietan ezartzen jarraitzea.
- Hurbileko merkataritza bultzatzea.
- TAO gunek berriak sortzeko aukera aztertu eta herritarrekin kontsultatzea, eta, hala badagokio, TAO gunek zabaltzea.
- Auzoetan kultura, kirol eta aisialdi arloetako jarduerak eta jarduera osasungarriak bultzatzea.
- Auzoetan Udaltzaingo komunitarioa, hots hurbilekoa, garatzea.
- Umeentzako jolasgune estalien kopurua handitzea.
- Galtzadak mantendu eta espaloiak jaisteko planarekin jarraitzea.
- Auzoetako argiteria hobetzen jarraitzea.
- Oinezkoen eremuak eta auzo-bihotzak sortzen jarraitzea.
- Bideozaintzarako kamera berriak jartzea herritarren segurtasuna hobetzeko.
- Bilbobuseko lineak egokitze azterlana.
- Hondakinen kudeaketa, garbiketa eta zabor-bilketa hobetzeko ekintza berriak.

JARDUKETAK

AUZO GUZTI-GUZTIETAN



1. BARRUTIA: DEUSTU

(SAN IGNAZIO-ELORRIETA, IBARREKOLANDA, DEUSTUKO DONE PETRI-ERRIBERA, ZORROTZAURRE, ARANGOITI)

1. BARRUTIAN GARATU BEHARREKO LEHENTASUNEZKO JARDUKETAK

1. Osakidetzarekin eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailarekin lankidetzan aritzea, San Ignazioko Osasun Zentroa handitzeko.
2. Madariaga Etorbideko zati bat ia oinezkoen eremu bihurtzea.
3. Rafaela Ybarra kalea hobetzea (Done Petri Plazatik Blas de Otero kaleraino).
4. Botikazarreko Parkea hobetzea.
5. Carmelo Bernaolako tunelak hobetzea.
6. Francisc Macia kalea hobetzea.
7. Arangoiti auzorako irisgarritasuna hobetzea.
8. Agirre Lehendakariaren Etorbidea hobetzea (Done Petro Plazatik Don Boscoren biribilguneraino).
9. Pabellón 6 eta Garabia berritzea.
10. Zorrotzaurreko Teknologia Parkea garatzea.
11. Ekaitz-tangak eta babes-petrila martxan jartzea, Deustuko Erriberan uholdeak saihesteko.
12. Zorrotzaurreko Ipar Muturreko eta Hego Muturreko urbanizazioa amaitzea.
13. San Ignazio auzoko irisgarritasuna hobetzen jarraitzea.
14. Ibarrekolanda kaleko espaloiak handitzea.
15. Kanariar Uharteak kaleko kirol-instalazioak kalearen amaieran biltzea.
16. Kirol-instalazioen eskaintza handitzea Sarrikoko Parkean, hobekuntza eta kontserbazio lanak egiteaz gain.
17. Juan de Antxeta kalearen inguruko berdegunea egokitzea.
18. Sarrikoko Parketik Zorrotzaurreraino oinezkoentzako pasabidea egiteko proiektua idaztea.
19. Bide-segurtasuna eta oinezkoen sarbidea hobetzea Elorrietan.
20. Benidorm kaleko espaloiak handitzea.

JARDUKETAK

AUZO GUZTI-GUZTIETAN



2. BARRUTIA: **URIBARRI**

(KASTAÑOS, MATIKO-LORURI, URIBARRI, ZURBARAN-ARABELLA, REMAR-SARRIKUE, ARTXANDA)

2. BARRUTIAN GARATU BEHARREKO LEHENTASUNEZKO JARDUKETAK

1. Hobekuntzak Lezamako Trenbide Zaharrean.
2. Hobekuntzak Moraza Plazan.
3. Artxanda Dinamizatzeko Proiektuarekin aurrera jarraitzea.
4. Orreagako Gudua kalea oinezkoen eremu bihurtzea.
5. Hobekuntzak Tiboli Zeharkalean.
6. Panerako jolasgunea estaltzea.
7. Lucia Yarza pasealekuaren jarraipena, lurzoruaen titulartasuna lortu ondoren.
8. Uribarriko goiko aldean eta Lorurin dagoen TAO zerbitzuaren eskariari buruzko azterlana.
9. Erretiratuentzako Zentro berria Matikon.
10. San Agustin Estrata kalea oinezkoen eremu bihurtzea (Tiboli Zeharkalearekiko bidegurutzetik Anselma de Salces kalearekiko bidegurutzeraino).
11. Bi igogailu berri Zurbaranbarrin.
12. Lorategi berria eta aparkalekua Atxeta kalean (Sarrikue).
13. Remar-Sarrikueko irisgarritasuna hobetzeko azterlana eta, hala badagokio, gauzatzeko proiektua.
14. Hobekuntzak Anselma de Salces kaleko urbanizazioan.
15. Zurbaran Ikastetxe Publikorako irisgarritasuna hobetzea.
16. Saneamendua hobetzeko lanak Tibolin, Castañosen eta Campo Volantinen.

JARDUKETAK

AUZO GUZTI-GUZTIETAN



3. BARRUTIA: OTXARKOAGA/TXURDINAGA (OTXARKOAGA, TXURDINAGA)

3. BARRUTIAN GARATU BEHARREKO LEHENTASUNEZKO JARDUKETAK

1. Europa Parkea: negutegiaren etorkizuna definitzea, gizarte-kohesiorako gunea izan dadin.
2. Europa Parkea: Pergolaren espazioa berritzea Plazaren beheko aldean.
3. Txurdinagako Ekobulebarra garatzen jarraitzea.
4. Espaloiak handitzea Ikastetxe Alemanaren ondoan.
5. Umeentzako aisialdi-gunea Ugarte kaleko lorategian (Txurdinaga).
6. "Merkatu Txinoa" - Zizeruena kaleko merkataritza-gunea berritzea.
7. Erretiratuentzako Zentro berria Txurdinagan.
8. Otxarkoaga ekoizpen artistikoaren erreferentetzat indartzea.
9. Txurdinagan TAO ezartzeko aukera aztertzea.
10. Otxarkoagako balizko kiroldegi trinkoaren bideragarritasunari buruzko azterlana.
11. Donejakue Bideko Erromesentzako Aterpetxe berria eraikitzea.
12. Ramón y Cajal ikastetxea eraberritze-lanekin jarraitzea, gizarte eta hezkuntza arloetako erabilerak ahalbidetzeko.

JARDUKETAK

AUZO GUZTI-GUZTIETAN



4. BARRUTIA: **BEGOÑA** (**BEGOÑA, SANTUTXU, BOLUETA**)

4. BARRUTIAN GARATU BEHARREKO LEHENTASUNEZKO JARDUKETAK

1. San Joakin kalearen eta Miraflores Etorbidearen arteko irisgarritasuna hobetzea.
2. Santutxu kalea eta Iturriaga kalea asfaltatzea Karmelo kaleko biribilguneraino.
3. Espaloiak handitzea Kalamua kalean.
4. Landaburu baserria eta Santo Rosario kaleak hobetzea.
5. Boluetako Osasun Zentroa handitzea, Karmelo ikastolaren ondoan.
6. Hobekuntzak Mandoia Mendia kalean.
7. Garabi Plazako umeen jolasgunea berritzea.
8. Larreagaburuko Parkea egokitzea, Eusko Jaurlearitzak lurzoruen lagapena egin ondoren.
9. Hobekuntzak Antonio Eguiluz Sendagilea, Santa Luzia, Santa Zezilia eta Juan de la Cosa kaleetan.
10. Hobekuntzak metroaren Boluetako geltokirako sarbideen inguruan.
11. Fika kaleari eta inguruneari dagozkien hobekuntzak aztertu eta gauzatzea, elementu mekaniko baten balorazioa barne.
12. Sagarminaga Etxaldeko atarietarako irisgarritasuna eta seinaleztapena hobetzea.
13. Begoñako hilerriaren lursaila aisialdirako eremutat egokitzeko azterlana (espazioa berreskuratzea).
14. Hobekuntzak San Joakin auzoan.
15. Begoñako hilerriaren balio historiko, kultural eta turistikoa aktibatzea.
16. Begoñako tunela berritzea.

JARDUKETAK

AUZO GUZTI-GUZTIETAN



5. BARRUTIA: IBAIONDO

(ZAZPI KALEAK, ITURRALDE, SOLOKOETXE, ATXURI, ABUSU, BUIA, BILBO ZAHARRA, SAN FRANTZISKO, ZABALA, SAN ADRIAN, MIRIBILLA)

5. BARRUTIAN GARATU BEHARREKO LEHENTASUNEZKO JARDUKETAK

1. Solokoetxeko igogailu zaharraren inguruan hirigintza arloko esku-hartzea egitea, ingurunea hobetu eta herritarren erabilera errazteko proiektuen bidez.
2. Euskal Museoa handitzeko proiektuarekin jarraitzea.
3. Gas Plazako umeentzako gunea hobetzea.
4. Iturribideko proiektua gauzatzea (Aurrekoetxea eta Fika kaleen arteko zatia).
5. IBT eraikinari eta Begoñako Errepublika kalearen azpiko lokalen Atxuriko espazioari gizarte eta hezkuntza arloetako erabilera ematea.
6. Areatzako iturri apaingarriak zaharberritzea.
7. Zubirik Planean Bilbo Zaharra, San Frantzisko eta Zabala auzoetarako adostutako neurriak implementatzea.
8. Miribillan udal liburutegia ezartzeko aukerak aztertzea.
9. Harrobi Plazan igogailua jartzea.
10. Eretza mendiko espaloiak handitzea.
11. Tranbiaren geltoki berria Kañu Pasealekuan.
12. Ibaizabal Landako umeen jolasgunea berritzea.
13. Ibaieder Parkeko bideak hobetzea.
14. Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan aritzea, Malaespera meategirako bisitak errazteko.
15. Irustabidean eta Seberetxen sarbideak hobetzea.
16. Larreagaburuko Parkea egokitzea, Eusko Jaurlaritzak lurzoruen lagapena egin ondoren.
17. Itxaropena kalean Frontoia martxan jarri eta udal ekipamendua egokitzea: liburutegia, mediateka, gazteentzako jarduerak antolatzeako erabilera anitzeko gunek, etab.
18. Atxuriko kiroldegia handitzeari buruzko azterlana egitea.
19. Zazpi Kaleetako zoladuraren mantentze-lanak.
20. Begoñako igogailua birgaitzea eta zerbitzuan jartzea, Eusko Jaurlaritzak Udalari laga bezain laster.
21. San Frantzisko zeharkatzen duten kaleak hobetzea, Miribilla eta Zapi Kaleen arteko joan-etorriak errazteko.
22. Zabalako Auzo Etxea eraberritzea, irisgarritasuna bermatzeko.
23. Etxebarria Parkearen berrikuntza garatu eta abian jartzea.

JARDUKETAK

AUZO GUZTI-GUZTIETAN



6. BARRUTIA: **ABANDO** (**ABANDO, INDAUTXU**)

6. BARRUTIAN GARATU BEHARREKO LEHENTASUNEZKO JARDUKETAK

1. Euskadi Plaza: erabilera areagotzea instalazio artistiko baten bitartez.
2. Zabalgunek Plaza: aparkalekuaren eta plazaren eraberritze integrala.
3. Rodríguez Arias kalea: merkataritza-korridorearen proiektuaren jarraipena, Recalde Zumarkalearen eta Poza Lizentziatuaren arteko tartea ondoren egin beharreko gunetzat hartuz.
4. Erretiratuentzako Zentro berria Abandon.
5. Abandoko Master Plana onartzea, AHTren iritsieraekin Abandoko geltokia lurperatuz berreskuratuko den espazioa antolatzeke.
6. Autonomia kalea hobetzeko proiektua eta jarduketaren hasiera.
7. Barrutian oinezkoentzako guneak gehitzea.
8. Fernández del Campo kalearen egokitzapen urbanistikoa (Concha eta Hurtado de Amezaga kaleen artean).
9. Maria Diaz Haroko kalea urbanizatzeko proiektua Kale Nagusirantz luzatzea.
10. Moyua-Colón de Larreategi-Rodríguez Arias kaleetako trafikoaren antolaketari eta hobekuntzei buruzko azterlana.

JARDUKETAK

AUZO GUZTI-GUZTIETAN



7. BARRUTIA: **ERREKALDE**

(AMETZOLA, IRALABARRI, ERREKALDEBERRI-LARRASKITU, BETOLAZA-URETAMENDI, ITURRIGORRI-PEÑASCAL)

7. BARRUTIAN GARATU BEHARREKO LEHENTASUNEZKO JARDUKETAK

1. Peñascaleko Plan Berezia onartu eta garatzen hasia.
2. Kiroldegi berria Casilla Plazan eta ingurua eraberritzeko jarduketa.
3. Autonomia kalea hobetzeko proiektua eta jarduketaren hasiera.
4. Eskurtze Parkeko esku-hartze urbanistikoarekin jarraitu eta agertokiaren estalkia gauzatzea.
5. Iralako irisgarritasuna hobetzea igogailu berriekin.
6. Errekalde Plazaren ingurua eta Plazako agertokiaren estalkia hobetzea.
7. Tolosa etxaldearen ingurunea berrurbanizatzea, bizilagunek lurzoruen titulartasunaren lagapena egin ondoren.
8. Bi igogailu berri Artazu-Bekoan.
9. Kirikiño Plaza birmoldatzea.
10. Artazu-Bekoa egonlekuak birmoldatzea.
11. Betolatzan egonleku bat sortzea.
12. Irisgarritasunaren hobekuntza Betolatzan eta bide eta eskaileren berrurbanizazioa (74. zenbakitik 127. zenbakira).
13. Errekaldeko biziberritze sozioekonomikorako azterlana, hutsik dauden lonjen eta industria-pabiloien erabilera abiapuntutzat hartuta.
14. Uretamendin asfaltoa berritzea.
15. Uretamendi eta Betolatz auzoetako Irisgarritasunari buruzko Azterlana.

JARDUKETAK

AUZO GUZTI-GUZTIETAN



8. BARRUTIA: **BASURTU/ZORROTZA**

(BASURTU, OLABEAGA, MASUSTEGI-MINTEGITUETA, ALTAMIRA, ZORROTZA, KASTREXANA)

8. BARRUTIAN GARATU BEHARREKO LEHENTASUNEZKO JARDUKETAK

1. Zorrotza Muturreko Hirigintza Plana garatzea, eremu osoaren berrikuntza integrala eta ingurumenekoa errazteko.
2. FEVE Zorrotzan lurperatzeko proiektua kofinantzatzea.
3. Hobekuntzak Azoka Parkean.
4. Zorrotzako Auzo Etxe berria.
5. Komun publiko bat jartzea Txinbo parke berrian.
6. Egonleku bat sortzea Bidegaineko berdegunean.
7. Ilogailu berria Olabeagan.
8. Irisgarritasuna hobetzea Kastrexanan.
9. Kastrexanako Eskola Zaharren plaza urbanizatzea.
10. Hiri-altzari berriak plazatxoan eta espaloietan, Zorrotza-Kastrexana errepideko 202. zenbakiaren parean.
11. Zorrotzan igogailu bat jartzea Erretiratuen Lokala hurbiltzeko.
12. Bidegorriarekiko lotura egitea Zorrotza eta Barakaldoren artean.
13. Zorrotzako Muturrean Ikus-entzunezko Poloa sortzeko proiektua bultzatzea.
14. Altamirako aterpetxe zaharraren egokitzapenerako azterlana.
15. Masustegi eta Mintegitxueta auzoetako irisgarritasuna hobetuko duen igogailua jartzea.
16. Mintegitxueta umeentzako jolasgunea hobetzea.
17. Hobekuntzak Luis Briñas kalean.



TALDE ZINTZO ETA KONPROMETITUA

Aurrera, batera!
Bilbao
Mira al futuro

Talde handia dut Bilbo nazioarteko erreferentziazko hiri bihurtzeko, inor atzean utzi gabe. Gaztetasuna eta beteranotasuna osagai dituen talde euskalduna da, prestakuntza, zintzotasun eta konpromiso nabarmenekoak, betiere bilbotarren bizikaltatea hobetzeko asmoari begira. Emakume eta gizon hauek prestakuntza eta esperientzia handia dute kudeaketa arloan, baita zerbitzu publikoaren bokazioa ere, eta balioak dituzte bereizgarri.

Ilusio, ahalegin eta lan-gaitasunaren iparrorratzak gidatuta, talde honek helburu argia du: etengabeko eraldaketa jasangarriari dagoen Bilbo moderno, erakargarri, seguru, garbi, kulturazale, berdinzale, solidario, anitz eta inklusibo hau hobetzen jarraitzea. Bilbotarra izateaz harro, pertsonak, auzoak eta jarduera ekonomikoa eta enplegua dira nire lehentasunak.

1. Aburto Rike, Juan Mari
2. Arregi Romarate, Amaia
3. Abaunza Robles, Asier
4. Ajuria Arribas, Marta
5. Ibarretxe Karetxe, Juan
6. Urtasun Jimeno, Itziar
7. Olabarria Villota, Gonzalo
8. Erroteta Sagastagoya, Itxaso
9. Ochandiano Martínez, Xabier
10. Claver Zurro, Kontxi
11. Odriozola Azula, Kepa
12. Inunciaga Serna, Eider
13. Zubizarreta Agirrezabala, Iñigo
14. Lizaso Urrutia, Lierni
15. Ibáñez Zugazaga, Ane Miren
16. Madariaga Garamendi, Iosu
17. Domingo Urrutikoetxea, Ainhoa
18. Urgoiti Rementeria, Carlos
19. Otalora Ariño, Begoña
20. Apellániz González, Iñigo
21. Barañano Arrutia, Ander
22. González Mancisidor, Iñigo
23. Cabanes Álvarez, Mari Carmen
24. Juaristi Izagirre, Mikel
25. Kinson Bueto, Lidia
26. Cortes Luengo, Mikel
27. Madariaga Gangoiti, Leyre
28. López Gutiérrez, Asier
29. Barbero Almenara, Carmen

ORDEZKOAK

1. Merino Urrutia, Rut
2. Ruiz Agúndez, Igor
3. Resano Abellán, Ainhoa

